

# KARKARA

ORIKO ETA AIAKO ALDIZKARIA / 2008ko azaroaren 28a / 250. zenbakia

- **HERRIKO KONTUAK** **Kreditu aldaketak** 05
- **KIROLA** **Joseba Agirre** 09
- **AIAKO BERRI** **Ordenantza fiskalak** 11

- **GEHIGARRIA** **Aiako argazki lehiaketa** 13
- **IRITZIA** **Idoia Etxabe** 30
- **HERRITARRA** **Paccha Conejo** 37



## Urpeko arrantzaren sekretuak agerian

Ez baxurakoa, ez alturakoa, ezta lehorrekoa ere, baina Borja Egiguren bada arrantzalea. Ur azpian ibiltzen da fusila hartuta.

**uranga**  
autozerbitzua



**Aliprox**

Enche Gudariak 13-15  
ORIO  
943 83 38 75

edariategia  
**ANTILLA**  
jatebidea



Alustiza kalea 2 - TEL. 943 83 00 00

**AUTOAK AUKERA ONEAN**



**AIA ORIO**

Telefonoa: 943 13 04 38



**A&E**  
The Academy of English

Justo kalea 3, Zarautz | Ibañondo pl. 8 Orio

Tel. 943 00 42 44  
943 83 51 91



**ACTIVA**  **Akobe**

ELEKTRAGAILUAK ETA SUKALDEKO ALTZARIAK

Juan Albizu

Abadien 6 - Telefonak: 943 83 12 47  
943 83 00 00

**Alustiza Autobusak**  
Alustiza Bidalak S.L.



Autobus litera eta  
16, 19, 25 eta 56 plazakoak.  
Bidalatu eta ezkontzetara edo sagardotegira joateko.

Tel: 943 13 28 93 / 83 08 80. Mugikorra: 656 78 30 01 - 656 78 29 99

**ALTERRI**

Karta eraberritua

Astebernan, eguerdi eta gurutetan,  
menu bereziak

**943 83 07 62**



**ARIATZA moda**

Eusko Gudariak, 7 | 943 83 10 88 | ORIO

**ARISTERRAZU**  
jatebidea



Andatza auzoa - AIA  
Tel. 943 83 45 21

**Automóviles ZARAUZ**

CITROËN OFIZIETZU OFIZIALA

Julgeku, berrak eta 4 pertsonak  
943 13 13 90

ZARAUZ, TEL. 943 13 13 90



**AMILIBIA**  
ONTZIGILAK, S. L.

larri portuetan proiektu eta instalazioak

guztira 6000 tonak eta gehiago

Olasnegia auzoa, 52  
34 943 83 08 29  
faxa 34 943 89 40 81  
amilibia@amilibia.com  
www.amilibia.com

Kinikiladenda - Ume arropa



www.lasonet.com/argine  
Tel. 943 13 48 89

2,5eko DESKONTUA FAMILIA  
UGARIEN TXARTELAREKIN

**IMANOL AGUIRRE MANTEROLA**  
ARKITEKTOA

OBRA PROIEKTUA  
ETXE BERRIAK ERABILTZEKO  
ZARAUZKO KAMPUTIK  
ETA BARRUTIK  
URBANIZAZIO PROIEKTUAK  
OBRA ZUZENDARITZA  
TKOSTENAK

MOBILA- 636-957 480  
ENDAK 1000000000 3-1

**ARKAITZ**  
Taberna

Pintxoak,  
plater konbinaluak  
eta ogitarleko mundialak

ABESILARI KALEA, 1 | Tel: 943 83 16 57

**Carmen eta Txomin**  
ARRANDEGIAR



943 83 05 37 / 943 83 27 47

# KARKARA

ORIOKO ETA AIAKO ALDIZKARIA

Kultur Etxea  
20810 ORIO  
943 83 15 27

karkara@karkara.com

**Editorea**

Karkara taldea kultur elkarte

**Zuzendaria**

Ana G. de Txabarri

**Erredakzio burua**

Lore Berasaluze

**Erredakzio taldea**Mikel Aranzabal, Pat Cowie,  
Miren Etxebarria eta  
Jabier Zabaleta**Aiako erredakzioa**

Eli Lasa eta Pat Cowie

**Publizitatea**

Pat Cowie

**Publizitatearen diseinua**

Lore Berasaluze

**Testuen zuzenketa**Miren Etxebarria eta  
Jabier Zabaleta**Ale honetako laguntzaileak**Idoia Etxabe eta  
Joxemari Lertxundi**Diseinua**

KARKARA taldea eta Goio Arana

**Banatzailak**Ane Etxabe eta  
Ander Mujika (Orio)  
Iruñe Aldai (Aia)**Inprimategia**

Gertu Koop. E. (Oñati)

**Lege gordailua** SS-346/90**ISSN** 1132-1105**Tirada** 3.200 aleKARKARAK ez du bere gain hartzen  
aldizkarian adierazitako esanen edota  
iritzien erantzukizunik.KARKARAN argitaratutakoa berremen  
daiteke, osorik edo zatika, baldin eta  
iturria aipatzen bada.

# Ezusteko bisita Ortzaikan

XABEIR AMURIZAK ETA ANDONI EGAÑAK ORTZAIIKAKO FESTETAN JARRIAK

**ANDONI EGAÑAK**Aipatu dizut ingurutako  
ezizen edo motea:*Orio aldean denak ijito*

lehengo zahar batek botea.

Ta gaur ortzaikan latza pasa da  
ai, Amuritz maitea:ijito batzuk beste batzuei  
lapurreta egitea.**XABIER AMURIZAK**Ez dakit hori noiz gertatu dan  
igual goizean goizik!

ez gendun falta ijito karro

denak mugitzea baizik.


Baina ez da hain desgrazi handia  
guztia txartzat jo ezik...lapurrak sartzen diran herrian  
behintzat ez dago krisisik.**ANDONI EGAÑAK**Afal garaian alkahueteek  
pasadizoa esana:*karabanatan txirindak sartu  
ta ijitu hori joana.*

Konturatzen naiz benetan gaizki

ulertu dutela dana

autoservicio deitu ohi zaio

ta ez autokarabana.



KARKARA

**PUBLIZITATE PREZIOAK****IRAGARKIA ALERO JARRITA**

Modulu bat .....	12,00 €
Bi modulu .....	24,00 €
Hiru modulu .....	36,00 €
Lau modulu .....	48,00 €
Sei modulu .....	72,00 €
Zortzi modulu .....	96,00 €
Orrialde erdia .....	120,00 €
Orrialde osoa .....	204,00 €

**IRAGARKIA BEHIN JARRITA**

Modulu bat .....	16,00 €
Bi modulu .....	31,00 €
Hiru modulu .....	47,00 €
Lau modulu .....	64,00 €
Sei modulu .....	95,00 €
Zortzi modulu .....	127,00 €
Orrialde erdia .....	174,00 €
Orrialde osoa .....	306,00 €

Publizitatea kontratatzeko Pat Cowierekin hitz egin (695 78 07 20) edo karkara@karkara.com  
Prezio hauei BEZA gehituko zaie**LAGUNTZAILEAK**

Euzko Jaurlaritzak

Kultura Sailak  
diruz lagundutako  
hedabidea

## Adierazpena, Euskararen Egunean

Euskararekin harreman gertuko eta estua dugun gizon-emakumeok osatzen dugu Orioko Udaleko Euskararen Aholku Batzordea. Udaletik horrela eskatuta osatu zen taldea eta euskararen inguruko gaietan herriko politikariei iradokizun eta aholkuak ematea da jaso genuen agindua. Urtean bospasei aldiz elkar-tzen gara eta iritzia ematen dugu gure herrian euskara sustatzeko eta bultzatzeko, eguneroko bizitzan normaltasunez gure hizkuntzan aritzeko, zein izan litezkeen biderik egokienak asmatu nahian. Konpromiso hori hartu genuen eta zintzo heltzen diogu betebeharrari. Udaletxe barruan egiten duguna denon aurrean egin nahi dugulako agertzen gara gaur hemen.

Euskara ez da guretzat apaingarri bat, polita egiten duelako janzen dugun soinekoa; euskara da bizitzeko daukagun tresna nagusia, ezinbestekoa guretzat eta kategoria hori aitortzen diogu eta dagokion lekua har dezan nahi dugu.

Herritarroi dagokigu euskaraz hitz egitea, eta erakunde eskatu behar dieguna da bide guzti-guztiak zabal eta erabilgarri edukitzea, ahalik eta traba gutxien izateko euskaraz egiteko; eta bideak ez badaude horrela, garbitzea eta txukuntzea da administrazioaren lana eta berriak zabaltzea.

Gauza asko eta ondo egin dira alor horretan, egia da; baina badira bestelakoak ere. Esate baterako, Orion aurten antolatu diren hainbat ikuskizunetan (Orion Sport Musik! izeneko jaian eta Euskal Herriko txirrindulari itzulian) ez dira oinarritzeko baldintzak bete euskaraz dagokion tokia izan zezan eta, horren aurrean, epel jokatu dute gure agintariek, zorrotz ibili behar zuten. Kontuan hartuta nolako garrantzia duten gure gizar-

### GUTUNERAKO OHARRAK

Argitaratu nahi diren gutunak KARKARAREN helbidera bidal daitezke edo gure lokalean eskuz entregatu (kultur etxean). Posta elektronikoz ere bidal daitezke honako helbidera: karkara@karkara.com

KARKARAK ez du argitaratuko izenik gabe datorren gutunik. Egileak hala nahi badu, ezizenarekin argitaratuko dugu; baina, beti, guk egilea nor den jakinda.

KARKARAK bere egiten du eskutitzak laburtzeko eskubidea.

tean jendaurreko ekitaldi handi horiek, nahitaezkoa da horietan ere euskararen erabilera txukunazaintzea. Zorionez, izan dira bestelako adibideak ere eta, esaterako, Kontxako estropada eta gero herriko arraunlariei egindako harrera ekitaldia eredugarria izan zen, berriz ere, euskararen erabileraren aldetik. Hara hor eredua, ikasi nahi duenarentzat!

Alferrikakoak dira gure bilerak eta aholkuak, agintean daudenek ez badute hizkuntzaren alde egitea lehen-tasun bezala ikusten; alferrikakoa da egunero eskoletan eta etxeetan egiten den lana, gero, behar denean, segidarik ematen ez bazaio. Tenka eutsi behar diogu guztion artean euskararen sokari, ez badugu nahi gure ahaleginak antzuko izatea.

**EUSKARAREN AHOJKU BATZORDEA**  
(MARIJE AZKUE, KARMELE BELASKO,  
BEÑAT CARRERA,  
ANA G. DE TXABARRI,  
IÑAKI ITURAIN, AINARA PEÑA,  
UXOA SORAZU ETA  
JABIER ZABALETA)

## Jon Redondoren arrabola

2008ko urriaren 28an, egindako udalbatzarrean, berriro ere, Jon Redondo alkatearen demokraziaren aurkako formak eta partaidetza murrizketa izan ziren nagusi.

Urriaren 1eko Hazienda Batzordean, 2009ko ekitaldirako tasa eta zergak onartu

ziren bertaratutako indar politiko guztien adostasunez. Zaborrak biltzeagatik tasa %10 igoko da; batzordeko EAJko presidentek proposatzen zuen %15aren eta Talde Mistoaren %5aren artean, hain zuzen ere.

Urriaren 22an, hurrengo batzordean, aurreko erabakia aldatzea eta zabor-tasa %20 igotzea proposatu zuen bertako presidentek. Proposamenak ez zuen gehiengorik lortu, eta urriaren 28ko udalbatzarrean eztabaidatzeko geratu zen. Boto bakar bateko aldeaz onartu zen, nahiz eta oposizioak tasa %10 baino gehiago ez igotzeko eskatu, gaur egungo krisia kontuan hartuta.

Agintaldi honetan lehen aldiz, Udaleko indar guztiek ados jartzea lortu zuten. Jon Redondo alkateak, bere dohain apartaren bidez, *danba!* batzordeko presidentea den zinegotzia ezeztatu zuen, eta, batzordeko gainerako kideen gainetik arrabola (*rodilloa*) pasatuz, %20 igo zuen zabor-tasa.

Bestetik, udalbatzarrean, Urola Kostako Udal Elkartearen araudiaren aldaketa onartu behar zen, gai-zerrendaren arabera. Orain arte 0-5.000 biztanle arteko udalerriek bi ordezkari zituzten eta hemendik aurrera 0-6.000ra igotzeko proposamena egin zen. Horrela, nahiz eta 5.000 biztanleria iritsi, Oriok ezingo ditu 3 ordezkari eduki.

Ondorioz, EAJkez duen mankomunitatean duen gehiengo galduko, eta nahi duen

erara egiten eta desegiten jarraitu ahal izango du, korrijoko jauntxoak izango balira bezala.

Lotsagarria da benetan XXI. mendean halakoak gertatzea, batzuk banana-errepublikatza hartzen duten herrialdean. Gainera, inolako lotsarik gabe diote horrela *dena kontrolpean dutela. Iruzurra, estatu-kolpea, armen bidez egindako lapurreta* edo *adar jotzea*, nahi dena, baina hori besterik ez da.

Ibarretzek erabakitzeo eskubidearen aldeko herri-partaidetzarako deia egiten digunean, bere jarraitzaileek, Orioko alkateak, esaterako, herriarren partaidetza murrizten dute, egun-argitan eta demokrazia-maila txikiko takigrafoekin. Mankomunitatean, PSEk eta EB-Berdeak %33 dute, hau da, 3 ordezkari; eta EAJK, %30,02rekin, 8 ordezkari. EB-Berdeakeko ordezkariak estatuan Hauteskunde Lege bidegabearen ondorioz gauza bera gertatzen dela adierazi du: diputatu bat edukitzeko, 481.520 boto lortu behar dira, baina diputatu bera erdiesteko, EAJK 50.541 boto baino ez ditu behar. Hori entzutean, Jon Redondok, buru-argitasunez gainezka, orain dela gutxi Rosa Diezek ere gauza bera esan zuela erantzun digu. Beraz, Rosa Diezek ordezkagarritasun demokratikoari buruzko ikasbideak eman beharko dizkio edo Jon Redondo demokraziaren antipodetan dago.

**IÑAKI GARCIA. EZKER BATUA  
BERDEAKEKO ZINEGOTZIA**

## Akatsak zuzenduz

249. KARKARAN badira zuzendu beharreko pare bat gauza, gutxienez: alde batetik, Joxean Manterola Zatainen 3. bertsoan, *ezker aldetik jota* jarri genuen, *ezker alderdiak jota* ordezkari; bestalde, argazki mundiala Bixente Larrañagak, *Xarpasek*, eka-ri zigun eta guk artxibokoa zela jarri genuen.

ORION! ETA BISIGU FESTEK EAJK BERAK BAKARRIK ANTOLATUTAKO JAIK IZAN DIRELA DIOTE

# Ezker Abertzalea ez dago ados Udaleko diru kontuekin

**Orioko Ezker Abertzaleko Udal Taldeak Bisiguaren Festari eta Orion! Sport Musik Festari dagozkien diru kontuen berri eman zuen azaroaren 18an.**

Orioko Ezker Abertzaleko Udal Taldeko Karmele Belasko, Joseba Goiburua eta Leire Zinkunegi agertu ziren jendaurrean eta uztailearen 1. eta 3. asteburuetan egin ziren Orion! Sport Musik Festa eta Bisiguaren Festa jaiek herriko izaerarik ez zutela esan zuten: beren taldearekin kontatu gabe egin zirela eta aurrekontuetan jasota ez zeuden 138.000 euro gastatu zirela.

**ORION! SPORT MUSIK FESTA** Goiburuk esan zuenez, maiztean egindako Kirol Batzordean Orion! festak gasturik ez zuela izango esan zuen Eugenio Cotadok, orduko batzordeburua. Goiburuk azpimarratu zuenez, datu hori behin eta berriz baieztatu zion. *Ekimeneko kudeatzailearekin izandako hizketaldian jakin nuen 8 hilabete zeramatzala alkateak festa antolatzen, inork ezer jakin gabe —dio Goiburuk—. Kreditu aldaketak osteko garaian agertu da Orion! lekia 17.000 euroko gastua izan zuela. Horietatik 12.000 euro alkate dekretuz ordainduta daude, gainera.*

Ezker Abertzaleak bileran adierazi zuenez, azaroaren 12an egindako azken Kirol Batzordean Promueve 3ri diru hori erreklamatzeko onartu zen, aho batez.

Jon Redondoren hitzetan, urte hasieran, Orion! festaren enpresa antolatzaileak —Promueve 3k— 120.000 euro eskatu zizkion festa egiteko eta proposamen hari ezetza eman zion. Gehitu du hilabete batzuetara, berriz jarri zela



Bisiguaren festako eta Orion! Sport Musik Festako diru kontuen berri eman zuten azaroaren 18an.

KARKARA

Promueve 3 berarekin harremanetan eta ados jarri zirela biak: Orion! Festa egiteagatik Orioko Udalak ez zion dirurik emango enpresa antolatzaileari, baina bere gain hartuko zituen boluntario eta mantentze, argiteri eta ur lanak, 17.000 euroko gastua izan zirenak.

**BISIGUAREN EGUNA**  
EAJk, berak bakarrik, isilean

**Bisiguaren festa elitista izateaz gain, herritar asko baztertuak izan ziren jai hori antolatzerakoan —Karmele Belasko**

kudeatutako festa izan zela uste du Karmele Belaskok Bisiguaren festa eta, festa elitista izateaz gain, herritar asko baztertuak izan zirela adierazi zuen: *Produktuak kanpoko enpresetatik ekarri ziren eta arrantza kutsuko jaiak antolatzaileak zirela egin zen. Hiru egun horietako diru sarrera gehienez ere 91.452,15 euroko izango da —oraingoz, 36.885 euro bakarrik kobratu*

**Bi festek Orioren irudi ezin hobea eman dute eta ondorioz, herriak bisitari gehiago izango ditu —Jon Redondo**

*dira— eta gastua 114.759,73 eurokoa izan zen.*

Antolaketan egindako gehiegikeriak ere salatuzituen Karmelek: *EAJk bakarrik, beste inork ez zituen banatu gonbitak, propaganda izugarria egin zen, alkateak eta Noemi Ostolazak Ficobako turismo erakusketan doan eman zituzten bisigu pintxoak...*

Alkateak adierazi duenez, gestio bikaina eta arrakasta, ezin hobeko festa izan zen Orioko hiru sukaldari buru izan zituen Bisiguaren Festa. *Herritarrak oso gustura gertatzeaz gain, bi festek Orioren irudiezin hobea eman dute eta ondorioz, herriak bisitari gehiago izango ditu—gehitu du—. Ezinezkoa zaigu, ekimen horien ondorioz komunikabideetan atera den etekina baloratzea.*

GAZTETXEA IREKITZEN DENEAN HILABETERO KALERATUKO DA

# Abenduan jaioko da Kazkezur gazte kazeta

**Gazteen eta gatzetxearen inguruko berriak emateko Kazkezur kazeta sortzeko asmoa dute OKK Gazte Asanbladako kideek.**

Badirudi Udalaren eta gazteen arteko elkarrizketak bide onetik doazela eta Orion gatzetxea sortuko dutela. Hori dela eta OKK Gazte Asanbladako kideek *Kazkezur* hilabetekaria martxan jarri nahi dute. Euskaraz argitaratuko da eta, iritzi artikulua eta erreportajeen bidez, gazteen eta gatzetxearen inguruko informazioa emango du hilabetekariak, DIN A5 neurriko zortzi orrialdetan.

Abenduaren 3an argitaratuko da zero zenbakia, proba gisa, eta gazte guneeetan eta tabernetan 200 bat ale banatuko dira, doan. Hurrengoak gatzetxea irekitzen denetik aurrera kaleratuko dira, hilabetero.

## FORMATUA

OKK Gazte Asanbladatik adierazi dutenez, gazteei zuzendutako aldizkaria denez, irudiak berebiziko garrantzia izango du kazeta berrian, baina hitzak ere ez dira faltako: *Aldizkariko testu gehienak asanbladan sortuko dira, baina herriko gazteen parte hartzea bultzatzeko, nahi duenak bertan iritzia azaltzeko aukera izango du, zentsurarik gabe, aldizkaria zabala izatea nahi dugulako.*

Zuri-beltzeko zortzi orrial-



Kazkezur kazetaren 0 zenbakiaren azala izango dena.

OKK

**Zabala eta librea izan nahi du kazeta berriak eta nahi duenak bertan iritzia azaltzeko aukera izango du, zentsurarik gabe**

deak 6 ataletan banatuko dira: kazkagor (iritziak eta lehiaketak), kazkabeltz (ekintzen

kronika), kazkabilo (erreportajea), kazkazuri ekintza bereziak), kazkarin (berri laburrak) eta Orioko eta inguruko herrietako agenda.

## AUTOEKOIZPENA

Kazkezur gazte kazeta OKK Gazte Asanbladak berak bakarrik ekoiztuko du, diru laguntzarik gabe, eta bertan ez da azalduko inolako publizitate-rik. Maketazioa egiteko eta ediziorako baliabideak KARKARAK utziko dizkie, material propioa izan arte.

## LABUR

### IKASTOLAKO ERAIKINA Baimen ofizialik ez

Muntoko plan partzialeko lurak birzatatze epea urriaren 29an bukatu zen, baina Orioko Herri Ikastolak ez du oraindik erakitze baimen ofizialik jaso. Muntoko plan partzialaren onarpenari errekurtsioa jarri zion EB-Aralarrek azken egunean, eta Udalak hori aztertze denbora izan zezan, aste-bete atzeratu zen prozesua. Hala ere, ikastolak lanekin aurrera jarraitzen du. Ikastolaren iritzia jakin nahi izan dugu, baina ego-kiagoa iruditu zaio momentu honetan adierazpenik ez egitea.

### DANTZA Prestaketa

AIKO taldeak euskal dantzak erakutsiko ditu sanikolasetan eta, egun horretarako, oinarrizko pausok ikasteko entsegu izango da abenduaren 1ean. Patxi Labordak zuzenduko du saio hori, 19:00etan. Interesatuak kultur etxean eman behar dute izena.

### FESTAK Trikitariei deialdia

Orioko trikitariei eta pandero jotzaileei saio berezi bat antolatze deia egin die Festa batzordeak eta bilera batera gonbidatu ditu. Bilera azaroaren 28an egingo da, 19:00etan,

**ERROTA**

- Eztei ospakizunak
- Banketeak
- Karta zabala
- Eguneko menua (lanegunetan)
- Oheak

Tfnoa: 943 83 54 65

**Pinturak ELKAR**

pintura eta paperatze lanak zoru leunketa

Abendaño industrialdea  
943 83 08 45 / 619 60 23 35  
ZARAUTZ

**Gabon**  
TABERNA

plater berriak eta pintxoak

Tfnoa: 943 83 06 09

UDAL ORDEZKARIEN PARTETIK EAK ETA EZKER ABERTZALEAK HARTU ZUTEN PARTE

# 50 bat lagun alderdien ilegalizazioa salatzeako deian

**Azaroaren 22an EAE-ANV eta EHAK alderdien legez kanporatzearen aurkako manifestazioa egin zen, Orioko Udalak deituta.**

Urriaren 28ko udalbatzarrean Ezker Abertzaleko Udal taldeak EAE-ANV eta EHAK alderdien legez kanporatzea salatzeako aurkeztutako mozioa onartu zen eta, beraz, Orioko Udalak azaroaren 22rako antolatutako manifestaziora deitu zituen herritarrak, alkateak sinatutako bando baten bidez.

Eguerdiko 13:10ak inguruan *Ilegalizaziorik ez, salbuespen egoerari stop* leloa zuen pankartaren atzetik abiatu ziren herriko plazan bildutako 50 inguru lagun. Bertan ziren, besteak beste, Orioko Ezker Abertzaleko Udal Taldeko hiru zinegotziak —Joseba Goibururu, Leire Zinkunegi eta Karmele Belasko— Orioko Eusko Alkartasunako zinegotzi Bixente Lasa, Aiako Ezker Abertzaleko ordezkariak —Antton Gomez eta Maitane Arrillaga—, Txarli Gonzalez EAE-ANVko idazkari nagusia eta baita Zarauzko eta Getariako Ezker Abertzaleko ordezkariak ere. Ez zen Orioko Udaleko gainontzeko alderdieta ordezkariak agertu.

Manifestazioak herriko zenbait kale zeharkatzen zituen bitartean, *Demokrazia Euskal Herriarentzat, Inde-*



*Ilegalizaziorik ez! Salbuespen egoerari stop* lelopean zeharkatu zituen manifestazioak herriko kaleak.

KARKARA

*pendentzia* eta *Eman hitza Euskal Herriari* bezalako oihuak entzun ziren.

## ESKER ONA

Mobilizazioa plazara iritsi zenean udalbatzarrean onartutako mozioa hitzez hitz irakurri zuen Joseba Goiburuk. Ondoren, bertaratutako ei eskerrak eman zizkien eta Eusko Alkartasuna alderdiaren elkartasuna nabarmendu zuen.

## BALORAZIO GAZI-GOZOA

Joseba Goiburuk KARKARARI

adierazi dionez, sentsazio gazi-goza utzi die aldarrikapenak. Balorazioa, orokorrean, ona dela dio, *eskualde osoan mozioa onartu zuen udal-erri bakarra izan ginen, PSOEren ezetza eta EAJren abstentzioak kenduta beste guztion baietzarekin.*

Bestalde, beraiek nahi adina jende ez zela gerturatu aitortu zuen, baina eskualdetik etorritako ordezkariak babesa eskertzekoa zela zioen. *EB-Aralarrek mozioari baietza eman eta EAJk abstentzioaz pasatzen utzi zuten*

**Urola Kostako eskualdean mozioa onartu zuen udal-erri bakarra izan zen Orio**  
—Joseba Goibururu

*arren, manifestaziora ez azal-tzeak konpromiso aktiborik hartzeko gai ez direla erakusten du azpimarratu zuen, bukatzeko.*

Igo zaitez hoize borrietara!

**Galeria I**

943890416 - 677149932  
galeria1orio@hotmail.com

**LORETXU TABERNA**

Eusko Gudari, 18 — Tf: 943 83 00 07

JAI ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUEGU!



Gogor aritu behar izan dute jokoan bikoteek finalerdietarako sailkatzeko.

KARKARA

LEHEN BUELTA BUKATU DUTE ETA SANIKOLASETAN IZANGO DIRA FINALAK

# 11 bikote gazteentzako frontenis txapelketan

**Herriko gazte talde batek frontenis txapelketa antolatu du San Nikolas festarako. 12 bikotek eman zuten izena eta hilaren 17an hasi zuten txapelketa.**

LHko 6.etik DBHko 4.era arteko gazteentzat frontenis txapelketa antolatu dute aurten bost lagunek —Gorka Etxeberria, Joxemari Errasti, Mikel Romero, Ibai Murgiondo eta Xabier Rekejo— osatutako gaztekoادريلak, iaz lehen aldiz antolatu zutenei erreleboa hartuz. 2007an gustura ibili zirela-eta, txapelketaren ardurara hartzera animatu zirela esan diote antolatzaileek KARKARARI.

## DOZENA BIKOTE

Hamabi bikotek eman zuten torneoan aritzeko izena, tartean bi emakumezkoak. Azkenean, ordea, 11k jokatu

dute, neska bikote batek utzi egin baitzuen txapelketa hasi aurretik.

Txapelketako lehen fasea kanporaketa bidez jokatu dute: partidak irabazten dituztenek bakarrik egin dute aurrera. Ondoren, finalerdi triangularrak jokatu dira: hiruko bi talde egingo dira eta talde bakoitzetik bikote onena pasako da finalera.

Antolatzaileek adierazi dutenez, esperientzia onaz izaten ari da berentzat, baina zailtasunak ere izan dituzte: *Jokalari asko beste kirol batzuetan gabiltza eta partidak zein egunetan jokatu ditugun erabakitzea zaila ari zaigu egiten.*

## LEHEN ITZULIA

Txapelketako lehen itzulia jokatu dute, dagoeneko: azaroaren 17an izan zen joanekoa eta 22an, etorrikoa. Bost bikote geratu dira bidean eta

**Finalerdiak irabazten dituztenek abenduaren 5ean jokatu dute finala, frontoian, 19:00etan hasita**

beste seik jokatu dituzte finalerdiak. Hauetxek dira aurrera egin dutenak: Rekejo-Aramendi, Gorka-Eiza, Jon-Nestor, Expo-Dorro, Tarantino-Eluz eta, zotz eginda, partidarik jokatu gabe sailkatu den Andoni-Mikel bikotea.

Finalerdiak noiz izango diren zehazteko dago, baina partidahoriek irabazten dituztenek abenduaren 5ean jokatu dute txapelketaren finala, frontoian, 19:00etan hasita.

## LABUR

### ZIKLOKROSA

## 79 kirolari

Kadete, junior eta elite kategorietako 79 txirritulari izan ziren azaroaren 9an Gipuzkoako Txirritulari Elkarteak antolatutako Orioko Ziklokros Sari Nagusian —*Spiuk Ziklokros* txapelketaren baitan.

Kadeteetan Jonathan Lastra eta Eider Merino izan ziren aurrena; jubenetan, Iñigo Gomez eta Tania Calvo. Elite kategorian partaide bakarri izan zen: Amaia Martioda.

### PILOTA

## Lagunarteko partidak

Sanikolasetan, abenduaren 5ean bikotekako lagunarteko bi pilota partida jokatu dira. Emakumezkoak arituko dira lehenik eta behin, palaz. M. Redondok eta M. Gurrutxagak M. Etxegia eta D. Errasti izango dituzte aurkari. Gizonezkoek, berriz, eskuz jardun beharko dute. M. Insaustik eta I. Aranaldek A. Lertxundi eta E. Galarragaren aurka neurtuko dituzte indarrak.

### SOFBOLA

## OBB txapeldunorde

Senior kategoriako OBB taldeak ezin izan zuen Lehendakari Kopako txapela jantzi, At. San Sebastianek irabazi baitzion hilaren 23an Mendibeltsen jokatuako finalean.

Bestalde, iazko jubenciligako finalerdiak eta finalak azaroaren 30ean jokatu dira, Orioko zelaian. Bertan izango da OBB ere.

Kadete kategoriakoak, berriz, Ordizian izango dira datozen bi asteburuetan: Euskal Ligako finala dute aurrena eta areto sofboleko txapelketa, gero.



JOSEBA AGIRRE | FUTBOLARIA

# “Bartzelona edo Athletic hartuko nituzke aurkari”

**Enpresa bateko langilea eta aita izateaz gain, futbolaria da Joseba Agirre santiotarra, eta Real Madrili irabazita, Errege Kopan aurrera doa Real Unionekin. Real Madril kanporatzeagatik bizitzen ari den une gozoko kontuak aipatu dizkigu.**

**Zer sentitu zenuen Real Madrilen aurka jokatu behar zenuela jakitean?**

Alde batetik, poza eta, bestetik, beldurra. Iaz, Valentziaren aurka etxean irabazi eta gero kanpoan galdu genuenez, gure artean hitz egin eta aurtengoan festa modura hartzea erabaki genuen. Real Madrilen aurka ere gerra pixka bat emateko asmoarekin atera ginen, baina gerra eman bakarrik ez, azkenean irabazi ere egin genuen.

**Ordezkoekin jokatzaren aitzakiak balio al dio Madrili bigarren B mailako talde batek kanporatzea zuzitze-ko?**

Ordezko batzuk baziren Irunen jokatu genuenean: Guti, Dudek... Denak dira beren herrialdeekin internazionalak. Saviolak, esaterako, gure talde osoak baino hiru aldiz gehiago kobratzen du.

Gero, jokatzaren hasi nintzenean, ez nintzen pentsatzen jarri noren kontra ari nintzen ere. Berekin hitz egiten jarri eta pertsona normalak direla ikustea da gehien harritu ninduen.

**Beraiekin harremanik izan zenuen?**

Bai, partidak irauten duen bitartean beti hitz egiten da aurkariekin. Nik Gutirekin sorpresa gustagarria eraman nuen. Telebistan ikusita harroputza dirudien arren, partida



Marene alabarekin eta Julen semearekin Aristerrazuko frontoian.

KARKARA

**Madrilen aurka gerra pixka bat emateko asmoarekin atera ginen, baina azkenean irabazi ere egin genuen**

bukatu ondoren bere kamiseta eman zidan; semearentzat ekarri dut etxera.

**Zein talde gustatuko litzazuke suertatzea hurrengo kanporaketarako?**

Bartzelona edo Athleticen aurka jokatu nahiko nuke. Tal-

**Gutirekin sorpresa gustagarria eraman nuen: partida bukatu ondoren bere kamiseta eman zidan**

de historikoak dira eta guretzat partida erakargarriak izateaz gain, klubari ondo etorriko litzaiokie diru pixka bat lortzeko.

**Klubarentzat ere diru sarre-  
ra ikargarria izango zen, ezta?**

Jakina. Azken urteotan bigarren A mailara gora egiteko atarian gelditu gara, eta aurtengoan klubak diru inbertsio handiko apustua egin du. Iruneko Gal futbolzelaiko harmailak erabat betetzeak klubaren ekonomia goxatu du.

**Ligan ere ondo zoazte.**

Aurrenak goaz eta bigarrena hiru puntura dugu. Oraindik ligan asko dago jokatzeke eta, azkenean, gutxienez laugarrena izatea da garrantzitsuena, lehenengo lauek jokatzen baitute igoerako *play off*. Kanporaketa gainditu izanak moralki asko indartu gaitu.

**Liga amaieran bigarren mailan egotea lortuz gero...**

Euskal liga sortu beharko dugu, orduan (farrez). Athletic eta Osasuna ez dabilta oso ondo, eta ez dirudi Realak eta Eibarrek igotzeko aukerarik izango dutenik.

**Momentu bereziren bat?**

Jokalari modura, Madrilen, 90. minutuan gola sartu, eta kanporaketan aurrera egitea, bukatutakoan Santiago Bernabeuko 60.000 ikusle zutik jarri eta txaloka izatea, horiek izugarriak izan ziren. Baina, pertsonalki, Irunera heldu ginenean egin ziguten harrera izan zen hoberena.

**Etorkizunera begira, planik baduzu?**

Futbolariaren kirol bizitza oso laburra da. Une honetan profesional modura jardun arren, ez du diru askorik ematen. Badaezpada, orain urte batzuk lanean ere hasi nintzen. Lan eroso da, futbola eta familia uztartzeko aukera ematen didana.

Azkenean, beti geldituko zait Orioko Futbol Taldea.

ASIER ARRUTI | MAKINAK MANTENTZEKO TEKNIKARIA

# “Ona da mendi tontorretara igotzeko ilusioa izatea”

**Aiako Argazki lehiaketan 1. saria irabazi berri du Asierrek eta beste argazki bat ere jarriko du egutegian. Horien atzean zer dagoen jakin nahian aritu gara hizketan.**

## Fotoak maiz hartzen dituzu?

Ez naiz argazkigintzan ari-tua. Propio horretarako ez naiz jarduten. Mendira joaten naizenean, beti eramaten dut kamera; baina, beste lekura joaten naizenean, ez zait bururatzten. Adibidez, herriko festak direla eta, ez dut hartzen umeei ateratzeko, edo giroa irudietan harrapatzeko.

## Noiz hasi zinen argazkiak egiten?

Orain dela 6-7 urte mendira joaten hasi nintzenean. Pirinioetara eta beti eramaten nuen argazki kamera eta batzuetan bideo kamera ere bai, baina hemengo mendietara joateko inoiz ez. Ingurua oso ikusia dugu eta pentsatzen dugu ez dugula ezer berririk ikusiko. Baina behin basahuntzak ikusi nituen goizean goiz hiru asteetan jarraian leku berean, baina beti kamerarik gabe. Harrezkerotik bertara joateko ere eramaten dut kamera.

## Lehiaketa gehiagotan hartu duzu parte?

Ez, ezta Aian ere. Aurten ere kasualitatez izan da. KARKARAN irakurri nuen egun batzuk falta zirela, eta gordeta nituen fotoen artean hasi nintzen begiratzen. Baina tontor eta zeru asko nituen, denak berdintsuak. Egutegian azalduko dena Ernion egindakoa, da, eguna hasten ari zela. Behetik ikusita dena gris zegoen, baina goian urdin-urdina zen dena eta laino-itsasoa zirudien. Irabazi duena, Itu-



Goizean goiz, mendi ibilaldian, ateratzen ditu Aitorrek argazkiak.

KARKARA

## Mendira joaten naizenean beti eramaten dut kamera digital txikia

rrarango haize errota, azken egunetan hartu nuen, lanetik etorrita.

## Nolako kamera duzu?

Digital txiki horietako bat. Lehen neukan analogikoa objektiboarekin, baina mendira joateko ez zen eramateko eroso, eta honekin hobeto nabil eta, nahi izanez gero, bideo txiki bat ere grabatu dezakezu. Egia da gauza batzuk ondo harrapatzeko

## Egun argitze desberdinak eta politikak ikusten dira goizean goiz joanez gero

kalitate oneko kamera behar duzula, ez eskuzko kamera txiki horietako bat, dena oso urruti ikusten baita, baina erosotasunagatik bestea erretiroan dago.

## Argazkiak lantzen dituzu?

Ez. Denbora askorik ez daukat mendira joateko, eta argazkiak lantzen jartzeko gutxiago. Ateratzen ditudan bezala gordetzen ditut ordenagailuan. Eta sorpresa izan

da niretzat sariak irabaztea. Ez nintzen erakusketatik pasa, baina lagunek esan zidaten oso maila oneko argazkiak bazeudela aurten.

## Sailkatzen dituzu?

Digitalarekin argazki asko hartzen ditugu normalean. Gero, bai, karpitetan jartzen ditut, mendien izenen arabera eta datarekin. Adibidez: Pagoeta 2008ko maiatzean semearekin.

## Bi sari irabazi eta bietan zeruak garrantzi handia du.

Hala da. Goizean joaten naizenez, eguna argitzeko momentuan, egun argitze oso desberdinak eta politikak ikusten dira. Bestela ez zara konturatzen, eguerdikoa bakarrik ikusiz gero. Gainera, mendira joaten zarenean normalean tontorretik egindako argazkiak egiten dituzu, bidean gutxiago, eta goitikan beti ikusten duzu zerua.

## Mendizalea zara.

Zalea eta amorratua ere bai. Nahi baino gutxiago joaten naiz. Lehen, arraunean ibili nintzen baina denbora asko jaten zuen. Utzi nuenean hasi nintzen mendira joaten. Haurrak ditugunez, zaila da, baina aprobetxatzen dut eguna argitzerako abiatzeko eta 9etarako edo bueltan naiz. Orain, emazteak baimena ematen didanean asteburua Pirinioetan pasatzeko, fiyo joaten naiz lagunekin.

## Ba al dago joan nahi duzun lekuren bat mendira igotzeko edo argazkiak egiteko?

Askok. Tontor askora igo nahiko nuke. Alpetan izan naiz eta urtero joango nintzateke gustura. Gero, joango ez banaiz ere, ilusio handia izatea ona da.

ZABORRAK ERAGIN HANDIA IZAN DU BATEZ BESTEKO IGOERAN

# 2009rako %6 inguruko igoera ordenantza fiskaletan

**Datorren urterako Ordenantza Fiskaletan batez besteko %6 inguruko igoera aurreikusita dago. Gorakadarik altuena, %20, hitzetik hortzera ibili den gai berean izan da: zabor bilketa eta tratamendua. Beste asko, berriz, ez dira aldatu.**

2009an aldatuko ez diren zergak honako hauek dira: ibilgailuen, etxebizitzaren eta obren zergak, gizarte zerbitzuak, lurzoru publikoa erabiltzekoak eta feria eta jaietako postuen gainekoak. Baina Aiako lurretatik pasatzen diren zerbitzu pribatuak, ordea, (Telefonica, Repsol, Iberdrola...) %20 gehiago ordaindu beharko dira datorren urtean.

## IGOKO DIRENAK

Igoera asko KPIren ingurukoak dira. Ura, saneamendua eta arazketako tasak, esaterako, batez beste %6,5 igoko dira. Hileta, brigada eta musika eskolako zerbitzuak justu urte erdiko KPI jarri dira, hau da, %4,5ean. Dema plazaren gaineko zerga %6,34 igoko da.

Beste batzuk askoz gehiago egongo dute gora, nahiz eta eguneko bizitzan eragin txikia izaten duten. Faxak eta fotokopiak egiteko igoera %25 izango da, 0,20 zentimo orri bakoitzeko.

Igerilekuarena batez beste %17,32 izango da. Horrekan nahi du, helduen 3 hilabeteko abonua 20 eurotik 25era pasako dela. Baina polemika handiena ekarri duena zaborrarena izan da.

## ZABORRA

2009an zabor bilketa %20 igoko da, 2008an egin zen bezala. Tasa berriak zabor guztien bilketen kostua kitatu behar du; hau da, zaborteziaren, bilketa orokorraren eta gaikako



Zaborraren gainerko zerga %20 igoko da datorren urtean.

KARKARA

**Zaborraren tasa urtero igo behar dugu gero, 2012an, dena batera egitea golpe handia izan litekeelako**  
—Igor Iturain

bilketaren tasak. 2009ko uztailetik aurrera zabor tonako 125 eurokoa kostua izango du. Herri batzuetan polemika handia sortu du gaiak, eta Aian onarpena jaso zen aldeko 6 boto eta bi abstentziorekin. Esker Abertzalekoak abstentitu egin ziren ordenantzak ez baitira banaka bozkatzen, eta ez daude ados zaborrari ezarri zaion %20ko igoerarekin. Alkateak, berriz, dio, *Orain urtero ez bada igotzen 2012an planta berria martxan jartzen*

*denerako, kolpe askoz ere handiagoa izan liteke dena batera egitea.*

Orokorrean, KPIaren gaitetik igoera zergak, batez ere zaborraren eraginarengatik, baina alkateak esan digu: *Ikusita zein egoera ekonomikoa dabilkigun, autoarena eta beste batzuk ez dira igoko, biztanleek karga guztia ez jasotzeko.*

## TAXIA

Urola Kostako bost herrien artean akordio bat dute taxi zerbitzu batua mantentzeko, herri guztietan tarifa bera izateko eta taxistek horietako edozein herritan bezeroak hartzeko. Hori dela eta, datorren urtean tarifa %7,5 igoko da. Taxisten eta Urola Kostako ordezkarien artean iritsi dira akordio batera kalkulatu baten bidez, non erregaiaren prezioa eta egiten dituzten kilometroak baloratzen diren.

## LABUR

ETXEBIZITZAK

## Ametsgain kooperatibako etxebizitzak

Armendigain kaleko 18, 19, 20 eta 21 atarrietako etxebizitzak erosten ari diren herritarrak azken egunetan hasi dira papearak sinatzen etxean sartu eta maileguaren ardura hartzeko. Erabaki gabe gelditzen da etxeak nola dau den tasatuta berrikustea, kooperatibak Udala epaiketara eraman baitu epaileak erabaki dezan, baina ez dago jakiterik hori noiz egingo den.

AISIA

## Gaztaina jana igandean

Gaztaina Eguna izango da igandean, 30ean. Lardizabal Herri Eskolako Guraso Elkarteak antolatu du festa. Hasteko, *Alvin y las ardillas* pelikula emango da kultur etxean 17:00etan eta, jarraian, plazan edo frontoian, gaztaina jana izango da. Hori aitzakitzat hartuta, herritar guztiak gonbidatu dituzte arratsalde alaia pasatzeko eskolako ikasle eta gurasoekin batera.

TELEBISTA

## Herritarrak Sautrela saioan

Sautrela saioan, ETBn ematen duten literaturari buruzko programan, Orioko Audra Alamanaityte eta Aiako Pat Cowie ia astero azalduko dira datozen hilabeteetan. Sortu berri den atalean 40 bat pertsonari hitz bat eman eta bakoitzarentzat hitz horrek zer esan nahi duen galdetu diete. Grabaketak zatika jartzen ari dira aste-oro. ETB1ean, larunbatetan 14:40ean eta ETB3an, astelehenetan 21:30ean ikus daiteke Sautrela.

## AIAKO LEHIOA

# Egaztiak Afrika bidean negurako

**U**rrutiko lurraldeetan bizi diran egazti asko negurako Afrikara juten dira; eta udazkenean nola izaten duten beren aldia egiteko garaia, eiztariak ere garai orretxen zai egoten dira.

Gañera eiztari askok urteko oporrak ere udazkenean artzen dituzte eizean gozatu bat artzeko asmotan.

Udazkenean egazti mota askok artzen dute Afrikarako bidea, izaten dira egunak, urte garai ortan, tropela izugarriak pasatzen diranak, batez ere usoak, aurten Aia gañetik eztu izan usoak pasara haundirik, baña Ernioren bi aldetatik, izugarriak pasatako egunak izan omen dira, itsas-aldeetik ere bai noski, eiztariak beintzat ala esan dute, eta egia izango da, eiztariak ez dute gezurrik esaten, ez orixe.

Egazti oiek, zeru sabaian barra barra pasatzen asten diranean, danak gora begira jarriarazten ditu, ikuspegi zoragarria jartzen bai dute gure begientzat.

Azaroaren 18an, san Roman eguna ain zuzen ere, antzarrak arrigarrizko pasara izan zuten, zeru-azpia erabat beztutzen zuten uneak izan ziran, millaka asko pasa ziran egun ortan, ni ere aieri begi-

ra aspertueziñikegon nintzan, eta seguru nago, ni bezelaxe beste asko egongo zirala.

Nik uste nuen pasatako egazti oiek beren norabidean zuzen juteko sena izango zutela, baña san Roman biaramuneko antzarren joera ura ikusita zer pentsatua jarri didate; bezpean egoalderantz pasa ziran bezela, emeretzian berriro asko eta asko itzuli egin ziran, gai oietan adituak

diranak esaten dute bidean laño itsuarekin topo egiten dutenean itzuli egiten dirala, baña oien senak lañoarekiko arazoak gainditu bear lituztekel iruditzen zait, beste arrazoiren bat izango dute orrela itzultzen diranean, ni beintzat iritzi ortan nago.

Gure inguruan bizi diran animaliak ere, zaldi, beor, asto, idi, zakur eta abarrek, lenago bein pasatako bidean lañoa era ilunagatik zuzen jungo dira jun bear duten tokira, eta basapiztiak berriz, azeri, otso eta beste asko oraindik iaio-agoak dira, eta antzarren artean ere, bat baño geiago izango ziran bidaia ori lenago egin-dakoak, eta lañoagatik bideak nastutzen diran kontu ori ezin det zinistu ezta gutxiagorik ere, ni nerean gelditzen naiz.

JOXE MARI LERTXUNDI

**Zeru sabaian barra  
barra pasatzen  
asten direnean,  
ikuspegi  
zoragarria jartzen  
dute gure  
begientzat**

**Nik uste nuen  
pasatako egazti  
oriek beren  
norabidean zuzen  
juteko sena  
izango zutela,  
baña...**

## TXOKOAK ETA JENDEA



## Ingeleseko taldea

Hemen, ezkerretan, ingeleseko ikasle batzuk irakasle berriarekin dituzue, Iñigo Azpitarte zarautzarrarekin. Giro onean eta gustura dabilta berehala gure artean ezaguna bihurtuko den maisuarekin. Izan ere, gaztetxoentzat egin eta laister ikusiko dugun *Golazen, High School* musikaleko euskarazko bertsioaren protagonista da Azpitarte.



Herritarak 1. SARIA: **Windeco vento 5000**  
ASIER ARRUTI

## AIAKO III. ARGAZKI LEHIAKETA

*Hirugarren urtez, Aiako Udalak Argazki Lehiaketa antolatu du. Naturako lau elementuak gaitzat hartuta, 27 argazkilariren —19 aiarrak— 91 lan aurkeztu dira. Bi kategoria izan ditu lehiaketak: bata, herritarrentzat eta, bestea, kanpotarrentzat. Argazkigintzan aditua den Koldo Berazak, Maitane Arrillaga zinegotziak eta Igor Iturain alkateak osatutako epaimahaiaren arabera, Goizane Mendizabalen Agorregi argazkia izan da lehiaketako onena. Irune Zulaikak Gaztainarekin lortu du 2. izatea eta Atsedeen laburrak izenekoagatik 3.a izan da Ander Maio. Herritarren artean Asier Arrutiren Windeco vento 5000k jaso du 1. saria, J. M. Uriak irabazi du 2.a Naturako lau elementuen bidez lortutako altzairuari esker honako lehen distira egunsentianekin. 3. saria, berriz, Ana Lasaren Haizearen lanakentzat izan da.*

*2009ko egutegia egiteko argazkiak ere horietatik aukeratuko dira. Fotoak ikusgai izan dira kultur etxean, eta herritarrek aukera izan dute gustukoena aukeratzeko. Lehia horretan 145 lagunek eman zuten botoa, iaz baino gehiagok eta boto horien arabera erabaki da zein argazki azalduko diren egutegi berrian. Bestalde, argazkiak ikustera joan direnek aurtengo txapelketako maila ona azpimarratu dute.*



Herritarrak 2. SARIA: Naturako lau elementuen bidez lortutako altzairuari esker honako lehen distira egunsentian  
J. M. URIA



Herritarrak 3. SARIA: Haizearen lanak  
ANA LASA



1. SARIA: Agorregi  
GOIZANEMENDIZABAL



2. SARIA: Gaztaina  
IRUNE ZULAIKA




3. SARIA: **Atsedan laburrak**  
ANDER MAIO




**Pagoeta**  
PEADAR OCAOINNEALAIN



**Metal ura**  
IDOIA IRIBAR



**Sua eta ura Ernioraino**  
ASIER ARRUTI



**"Tintxua"ren oilarra**  
ANA LASA



# ŞANIKOLAŞAK 08



festi  
a  
p  
o  
r  
g  
o  
r  
a  
m

GAUEKO HAMAIKETAN, BAPO AFALDU ONDOREN, JOKO DITUZTE LEHEN DANBOR KOLPEAK

# Piraten danbor soinu umoretsuak festak hasteko

OKK Gazte Asanbladak hartu du aurtengo txupinazioa antolatu eta botatzeko ardura. Zantzu umoretsua emateko danborradako eta inauterietako abestiak txandakatuko dituzte, pirataz jantzita.

Gaztetxea sortzeko atarian egonda eta urte osoan egin duten programa zabalari azken ukitua emateko asmoz, kapitainik gabeko pirata koa-drila ederra elkartu da festei hasiera emango dion danborradarako: 65 neska-mutil inguru danbor eta barriketan banaturik, 15 bat laguneko txarangak lagunduta, herri-tarrei gazteria bizirik dagoela gogorarazteko prest.

Festak umoretsu hastea, ordea, ez da gazte horien helburu bakarra, bide batez, danborradaren aitzakiaz, Unai Izagirre, herriko gaztea, omen-duko baitute; berak botako du txupina. Sorpresak ere izango direla aurreratu digute antolatzaileek.



Hilabetez, astean bi aldiz elkartu dira ikastolako pergolapean.

KARKARA

## TXARANGA BEREZIA

Herrian txarangarik ez dagoelako, kanpotarregana jo behar izan dute laguntza eske. Orioko eta inguruko herrietako gazte musikarien artean

txaranga berezia osatu dute festetarako.

## IZAGIRRERI OMENALDIA

Saskibaloian egin duen denboraldi bikainagatik eta aurre-

an duen ibilbidean ahalik eta zorte onena opatzeko, Unai Izagirre aukeratu du OKKk txupina pizteko. Ohorezko aureskua dantzatu eta oroi-garri bat emango zaio.

An advertisement for La Caixa. On the left, there is a photograph of the La Caixa storefront at night, with its entrance lit up. The text "La Caixa" is visible above the entrance. On the right, there is a white box containing logos for OKIO, VISA, and La Caixa. Below the logos, there is text: "1234 5678 9012 3456", "NOIZ ARTE BALIO DU", "12-12", and "ZEN ABIZENAK". Below this, there is more text: "Eskatu ezazu La Caixan Orio Arraun Elkarteke txartela". At the bottom, there is a large, bold text: "La Caixak jai zoriontsuak opa dizkizue!".

OKIO

VISA

1234 5678 9012 3456

NOIZ ARTE BALIO DU 12-12

ZEN ABIZENAK

Eskatu ezazu  
La Caixan  
Orio Arraun Elkarteke  
txartela

**La Caixak jai zoriontsuak opa dizkizue!**

# Abenduak 5, San Nikolas bezpera

**TXURRUMUSKIK 10 URTE**

- 
- 17:00** 3 x 3 saskibaloia txapelketa Karelan,  
Ikastolak antolatuta
- Txurrumuskirekin** haurrentzako  
tailerrak eta jolasak, plazan
- 18:00** Merienda plazan
- 19:00** Pilota partidak frontoian: neskak palaz,  
mutilak eskuz
- Haurren txupinazoa** plazan  
**Txurrumuskirekin:** buruhandi,  
erraldoi eta txistulariekin
- 19:30** Muskuilu Harriren I. Argazki  
Lehiaketaren sari banaketa, kultur etxean
- 23:00** Helduen Txupinazoa: Unai Izagirre  
omenduko da; danborrada, gazteekin
- 00:00** Trikizio musika taldea plazan

# Abenduak 6, San Nikolas eguna

- 
- 10:00** Xakea kultur etxean, Ikastolak antolatuta
- 10:30** Txistulariak kalez kale
- 11:00** Meza nagusia Salatxok abestuta
- 12:00** Jubilatuen hamaiketakoa
- Dantzari txikien txapelketa plazan,  
Harribilek antolatuta**
- 12:30** Salatxo abesbatza kalez kale
- 17:30** Galtzagorriei to, Inaxito!  
gaztetxoentzako ikuskizuna Karelan
- Frontenis txapelketako finalak frontoian**
- 19:00** Orioko Vivencias talde otabaldarraren  
dantza eta musika ikuskizuna plazan
- 22:30** Bertso saioa Karelan, Errikotxiaren eskutik:  
Egaña, Lujanbio, Lizaso, I. Gurrutxaga eta M.Arzallus
- 23:30** Hamabi Tribu plazan

# Abenduak 7, Gaupasa eguna

- 09:30** Orioko Gazte Txaranga, kalez kale
- 10:00** Graffiti lehiaketa Pelotari kalean,  
Farfarak antolatuta
- 11:00** Haurrentzako puzgarriak Karelán  
Hamaiketakoá plazan: salda eta haragia
- 12:00** Toka jokoa plazan zahar eta gazteentzat  
Paella lehiaketa  
Zaldi erakusketa Antilla hondartzan
- 13:00** Kontzertua plazan: Joseba Urbietta
- 14:00** Paella lehiaketako sari banaketa eta  
jatea plazan
- 16:30** Haurrentzako puzgarriak Karelán
- 17:30** Graffiti lehiaketako sari banaketa plazan
- 18:00** Kale antzerkia Alproja taldearen eskutik
- 20:00** Orioko Gazte txaranga kalez kale
- 23:00** Can't explain, Sexty Sexers eta  
Esne Beltza musika taldeak plazan

# Abenduak 8, Euskal Jaia

**BASERRITARREZ EDO ARRANTZALEZ JANTZITA**

- 
- 11:00** Kalejira herriko trikitilari, pandero jotzaile eta ttunturrroekin
- 11:30** Futbol partida, infantiletan: OFT-Erreala
- 12:30** Sagardo lehiaketa eta txistor banaketa plazan
- 13:00** Txalaparta saioa plazan
- 13:30** Kantu jira, Egunsenti otxotearekin
- 14:30** Herri Bazkaria ikastolako pergolan: babarrun jana
- 17:00** Ataungo talogileak plazan
- 17:30** Musika tresnen fabrika ikuskizuna haurrentzat plazan
- 18:00** Heldu! taldearen erakustaldia Karelan
- 19:00** Kalejira trikitilari eta pandero jotzaileekin
- 20:00** Aiko taldearen saioa plazan

# “12 bat bikote arituko dira oholtza gainean dantzan”

Urte batzuk pasa dira Orion lehen aldiz dantza sueltoko txapelketa antolatu zenetik eta mantendu den ohitura da, Harribil dantza taldeari esker.

**Zenbagarren txapelketa duzue aurtengoan?**

2002an hartu genuen guk lehiaketa antolatzeko ardurara, baina, egia esan, ez dugu aparteko meriturik. Harribilek urte batzuk bazeramatzan horretan geronen esku geratu aurretik eta guk lekukoa hartu, besterik ez genuen egin.

Badakigu sanikolasetan ez dela inoiz hutsik egin; sanpedroetan ez bezala. Ekaineko festetan helduentzako izaten da txapelketa eta, urteen poderioz, parte hartzea jaitzen joan da. Azken bi urteetan ez da txapelketarik egin, zazpi-zortzi bikoteentzako antolatzea ez baita bideragarria.

**Zer aldatzen da sanikolasetan?**

Abenduan 16 urtez behe-



16 urte arteko bikoteak arituko dira oholtza gainean dantzan.

KARKARA

rako bikoteak izaten dira oholtzaren gainean dantzarako abilezia erakusten. Urtero dozena bat inguru bikotek

ematen du izena. Gehienbat Azpeitiatik, Lezotik eta Bergararik etortzen dira; dantza eskola indartsuak dituztela

**Erritmoa, bikotearen arteko konplizitatea, pausuen zailtasuna... baloratzen dira**

nabari da. Azpeitian, esaterako, fandangoa eta arin-arina bakarrik erakusten dira.

**Iaz baziren oriotarrak. Aurtentzen?**

Iazko moduan, Julen Alonsok eta Ihintza Unauk bikotea osatuko dute eta Estela Atorrasagasti Donostiako lagun batekin arituko da, hura baitu dantzako kidea. Gai nontzekoek zer ikasia badute, oraindik.

**Epailerek zer baloratzen dute?**

Erritmoa, bikotearen arteko konplizitatea, zailtasuna... gauza asko. Txapelketa batzuetan arropa ere hartzen da kontutan, baina Orion ez.

*Abenduaren 20an ERTZA itxiko dugu*

*Abenduaren 1etik 20ra*

*guztia %60ko deskontuarekin*

*Mila esker denoi eta ondo izan!*

# Komun publikoak jarriko dira barraketako inguruan

**Aurtengo sanikolasek zenbait berrikuntza izango dituzte, antolakuntza aldetik.**

Festa Batzordeak eskatuta, komun publikoak jarriko dira sanikolasetan barraketako gunean, Arkaitz eta ambulatorioaren artean. Obretako kaseta modukoa izango da, 7 komun eta zaintzailea ere izango dditu.

Txosna batzordeak, bere aldetik, edalontzi berrerabilgarrien aldeko apustua egin du oraingoan ere, eta aurreko urteetako zerbitzua hobetze aldera, edalontziak erosi eta itzultzeko karpa jarriko dute plazan, txosna ondoan.

Bestalde, Muskuilu Harria

elkarteak I. Argazki lehiaketa egin du eta saritutako argazkiekin erakusketa jarriko du kultur etxean festetan. Eguzkeroko egongo da zabalik: 11:30-13:00 eta 18:30-20:00.

## **ARGAZKI LEHIAKETA**

Orioko Udalak San Nikolas festak gaitzat hartuta, 3. argazki lehiaketa antolatu du. Parte hartu nahi dutenek lanak CDan aurkeztu beharko dituzte abenduaren 15a baino lehen, kultur etxean. Egun batzuen buruan emango du erabakia Jabi Zabaletak, Maitte Garciak eta Ana G. de Txabarrikosatutako epaimahaiak.

Irabazleak 300 euro jasoko ditu; 200, bigarrenak, eta 100, hirugarrenak.



Hemen jarriko dira komun publikoak.

KARKARA



LABORALA

euskaraz ere,  
**NATURAL TASUNEZ**

Euskadiko Kutxan euskaraz arreta ematea ez da zerbitzua bat.  
Gure lan egiteko modua da.



*Itsasoaren kresala usaintzera ohitua dagoen herrian bizi gara. Ur gazia bertatik bertara daukagu, baina orokorrean, itsasoaren azala, ur gaina, bakarrik ezagutzen dugu. Borja Egigurenek, aldiz, itsaso hondoko bizitza sarritan ikusi du. 15 metro urpean, ikusmiran eta arrantzan jarduten da, aletak eta fusila hartuta.*

LORE BERASALUZE

**Z**erkpiztu zizun ur azpiko mundua ezagutzeko gogoa, grina?

Haritz Arrizabalaga adiskidearen bitartez izan nuen ur peko arrantzaren berri. Kanbera hartuta hara eta ona ibiltzen ginen biok, eta berarekin hasi nintzen niretzako berria zen mundu hura ezagutzen, 15-16 bat urte nituela. Zarauzko Urpekoak elkarteko kide zen Haritz —orain bezalaxe, orduan ere ez baitzegoen Orion horrelako elkarterik— eta hango lagun talde batekin hasi nintzen. Pixkanaka gero eta sarriago joateko beharra sortu zitzaidan eta gaur egun, neroni ere elkarteko kide naiz.

**Gogoratzen al duzu lehen aldiz, ur pean ibilizinenekoa?**

Bai, nola ez. Aranarri parean izan zen. Uda zen eta bizikleta hartuta, pedalei emanaz joan ginen hondartzaraino. Txirrin dahan utzi eta oinez iritsi ginen Aranarrira. Beldur pixka bat banuen hasieran, ulertzekoa da, baina behin



XABIER G. DE TXABARRI

BORJA EGIGUREN | URPEKARIA

“Euskal Herriko kostak arakutzen ditut, gehienetan”

uretari sartu bezain pronto ahaztu zitzaizkidan denak. Ur gainean ibili ginen, lehen aldia zela eta. Itsaskabak, muxarrak... denetik ikusi genuen, orain baino askoz arrain gehiago baitzegoen orduan. Oso erakargarria egin zitzaidan ur azpiko bizitza. Telebistan ikusia nuen aurrez, baina norberak bere begiekin ikustea beste zerbait da. Neronek arrantzatutako arraina etxera eramateak egun batzuetarako bizipoza eman zidan. Oso polita izan zen, hala gogoratzen dut, behintzat.

### **Orduan ez zen oraingo arroparik izango? Nola moldatzen zineten?**

Artilezko jertse bat jantzita ibiltzen ginen hasieran. Bustita, pisu ederra hartzen zuen! Edo bestela, gorputzari itsasten zitzaion kamiseta estu-estu batekin aritzen ginen. Aleten gainetik galtzetinak janzten genituen. Dena tapa tapa eginda egiten genuen igeri. Lehendabiziko trajeak erosi arte horrela moldatu behar izaten genuen: hotza pasa, kanpora atera, berriz uretara sartu...

### **Zein tresna erabiltzen dituzue arrantzarako?**

Behetik gora hasita, aletak eta eskarpinak jartzen ditugu oinetan. Gorputza hotzetik eta zaurietatik babesteko, berriz, osoko trajea janzten dugu; osokoa, beti. Izan ere itsas trikuen artean igeri ibiltzean arrastak egiten dira eta horrelako eta beste zenbait arriskuetatik babesteko beharrezkoa dugu azala tapatzea. Eskularruak ere arrazoi beragatik erabiltzen ditugu.

Gerriaren bueltan, aldiz, beruna eramaten dugu, hondoratzen laguntzeko. Igotzeko, berriz, aletak astindu behar izaten dira, ez dago besterik. Neguan, jantzia lodia izaten denez eta flotagarritasun gehiago duenez, berun bola gehiago jartzen ditugu. Udan, pisu gutxiagorekin nahikoa izaten dugu, jantzia finagoa baita.

Betaurrekoak eta arnasa

hartzeko hodia ere beharrezkoak dira arrantzan egiteko. Gu oxigeno bonbonarik gabe ibiltzen gara, arnasari helduta.

Bestelako tresnei dago kienez, labana eta, batzuetan, linterna ere eramaten ditugu. Aurkitzen ditugun zulo beltzak argiztatzeko eramaten dugu argia, barrukoa ikusteko. Eta, nola ez, arrantzatu nahi badugu, fusila eskuetan izan beharko! Arrainak banan-banan harrapatzen ditugu guk. Gezia behin botata, pieza bat. Zuloren batean taldea baldin badago, tiro batekin pare bat arrain hartzen dira, baina ez da ohikoena izaten.

### **Ur azpian zabiltzatenean kanpoan egoten den buia txiki hori derrigorrezkoa al da?**

Bai, halaxe da. Neguan ez da, agian, hain erabilgarria izango, baina, bai, aldiz, udan. Izan ere txalupa asko ibiltzen da garai horretan eta haiek urpekaria non dabilen ikus dezaten beharrezkoa da buia. Gainera, kirol portua daukagunetik, motor asko ibiltzen da atzera eta aurrera eta kome-nigarria izaten da segurtasun baliabide guztiak erabiltzea. Hala ere, askotan nahiz eta buia eramanean, gure gainetik pasa egiten dira.

### **Sekreturik kontatzerik ez dugu nahi, baina non egiten duzue arrantza?**

Gehienetan hemen gertu ibiltzen gara, Donostia aldean, Jaizkibel inguruan... Aranarri partean ere askotan izan gara; baita Mollarrin ere. Bizkaian ere ibili izan gara, Lekeitioko bazterretan, batez ere. Euskal Herriko kostara katekatzen dugu ia beti.

Kanpora ere joana naiz, hala ere. Marokon sarritan izaten naiz lagunekin, bertatik bertara dago-eta, autoz egun bat behar da. Arrain dezente dago han —meroak eta urraburuak arrantzatzen ditugu, gehienbat— eta bertako jendearekin ere ondo konpontzen gara.

Panaman ere izan nintzen behin, ozeano Atlantikoan, Karibe aldean eta, batez ere,



ozeano Bareko aldean. Ustiatu gabe dagoen alderdia da guk ezagutu genuena: ekosistema guztiz aberatsa duena. Parboak eta guzti ateratzen genituen, gehigizkoazen hura. Karibearen, berriz, ez genuen hainbeste gozatu, urak garbiagoak ziren, baina arraina gutxiago zegoen.

### **Maiz entzuten duguna egia ote da: ur azpiko arrantzarako paradisia al da hura?**

Bai. Egun batean edo beste ur zikina tokatzen zen, egia esan, eta estresantea ere bazen ur haietan 25 metro behera jaitea, baina garbia dagoenean, primerako tokia da espezie asko arrantzatze-



KARKARA

ko. Baina beti ozeano Bareko aldean hobeto, Karibeko uretan ibiltzea ez da gauza bera.

#### **Huraxe al da orain arte ikusi duzun politena?**

Beno, zaila da galderahorri erantzutea, denak baitira politak. Bakoitzak bere berezitasuna eta xarma ditu.

#### **Eta emankorrena?**

Beti dago besteak baino hobeak, emankorragoa den txokoren bat. Zulo batzuk arrain gehiago erakartzen dituzte, lupiekin gertatzen den bezala, adibidez. Negua iristean, lupi asko zulo berean sartzen direnean, hantxe egoten dira, denbora dezent-

#### HASIERA

**“Oso erakargarria egin zitzaidan ur azpiko bizitza. Telebistan ikusia nuen aurrez, baina norberak bere begiekin ikustea beste zerbait da. Neronek arrantzatutako arraina etxera eramateak egun batzuetarako bizipoza eman zidan”**

#### LEHEN JANTZIA

**“Artilezko jertse bat jantzita ibiltzen ginen hasieran. Bustita, pisu ederra hartzen zuen! Dena tapa-tapa eginda egiten genuen igeri. Lehendabiziko jantziak iritsi arte horrela moldatu behar izaten genuen”**

#### ARRANTZA

**“Arrainak banan-banan harrapatzen ditugu guk. Gezia behin botata, pieza bat. Zuloren batean taldea baldin badago, tiro batekin pare bat arrain hartzen dira, baina ez da ohikoena izaten”**

#### SEGURTASUNA

**“Kirol portua daukagunetik, motor asko ibiltzen da atzera eta aurrera eta komenigarria izaten da segurtasun baliabide guztiak erabiltzea. Hala ere, askotan nahiz eta buia eraman, gure gainetik pasa egiten dira”**

#### LEKUAK

**“Gehienetan hemen bertan ibiltzen gara, baina kanpora ere joana naiz. Panaman, esaterako, ustiatu gabe dagoen alderdia ezagutu genuen, ekosistema guztiz aberatsa duena”**

#### HANDIENA

**“Panamako parajeetan arrantzatu nuen orain arte harrapatutako arrainik handiena: 32 kiloko berrugeta (*seriola dumerilii*) bat. Ikusi dudak handiena, berriz, gure kostetan zebilen andesa bat zen, 50 bat kilokoa”**

tean. Azken bi urteotan ez dugu ezer askorik aurkitu, baina lehen, urtero zulo berean makina bat lupi pilatzen zen.

### **Non harrapatu duzu arrainik handiena?**

Panamako parajeetan arrantzatu nuen orain arte harrapatutako handiena : 32 kiloko seriola bat. Ikusi dudan handiena, berriz, gure kostetan zebilen andesa bat zen, 50 bat kilokoa. Altueran ni adinakoa izango zen.

### **Nolakoa da itsasoaren hondoa hemen?**

Gure itsasertzean hondarra da nagusi. Itxaspe aldera zoazen heinean, harroka kanporaka zabaltzen da, pixkanaka. Kostatik 200 bat metro arte harria dago. Harri handiak izaten dira, zuloak izaten dituzten bloke ederrak. Ondoren, dena hondarra da. Kosta osoan antzeko paisaia errepikatzen da, Zumaia aldean izan ezik. Han labarrak daude eta erabat ezberdina da, oso bestelakoa.

### **Zein motako arrainak harrapatzen dituzue?**

Normalean sarboak — muxoiak— edo itxaskabak arrantzatzen ditugu eta, egia esan, orain gutxi samar aurkitzen ditugu, duela urte batzuren aldean, askoz gutxiago. Tarteka, urrabururen bat ere atera izan dugu.

### **Ur pean, zenbat metroko sakoneran ibiltzen zarete?**

Hemen inguruan hamabost metrotik gora egiten da arrantza. Hortik behera oso gutxitan jaisten gara. Ura erabat garbia dagoen kasuetan, 20-25 metroko sakonerara jaitsi gaitzke, baina hortik behera ezta pentsatu ere.

### **Sasoian egotea beharrezkoa da orduan?**

Bai, ur azpian arrantzan aritzeak prestaketa pixka bat eskatzen du. Bestelako ariketa egiteak ere laguntzen du, baina gehienbat sasoi hartzen laguntzen duena uretan sarri-sarri ibiltzea da—azpian edo gainean izan, arnasa eus-



ten jardutea egokia da—zenbat eta gehiago, hobe. Biriken gaitasuna handitzeko uretan ibili behar da. Korrika jardutean bihotza lantzen da, ez birikak. Hala ere sasoiko egoteko primerakoa da lasterka aritzea.

### **Azken urteotan arrain gutxiago dago itsasoan. Aldaketa nabaria izan al da?**

Orokorrean asko galdu da arraina. Lupia, esaterako, lehen asko ikusten zen eta orain, berriz, ez. Andesen kasuan ere, nahikoa nabar-

mena izan da azken urteotan egin duen beherakada. Duela urte batzuk, asko harrapatzen zen espeziea zen, txipiroitan ibiltzen zirenentzako ere baliagarria—txipiroia bera amu bezala jarrita andesak arrantzatzen zituzten—. Urte mordoan egon da galduta. Inguruetatik alde egin zuen eta azken bi-hiru urtetan, batek daki zergatik, berriz gure uretara itzuli da. Tamaina ederra, handia, hartzen duen arraina da andesa—50-60 kilokoak izan litezke—, arrain-sardetan mugitzen dira eta

arrantzaleen artean estimatuak izaten dira.

Boladak izaten dira, batzuetan arrain klase bat gehiago, besteetan gutxiago; baina, egia da orokorrean gero eta arrain gutxiago dagoela.

### **Espezie batzuk joan diren bezala ez al dira beste berri batzuk etorri?**

Txelba hortzandiak, urraburuen familiakoak, adibidez, oso gutxi ikusten ziren lehen eta orain, aldiz, txelba mota hori, urpeletakoa dena, gero eta gehiago dago.



BORJA EGIUREN ETA MAIDER CARRERA

### Gizakiaren eragina nabaritzen al da?

Asko. Bai arrainari eta baita ekosistemari dagokionean ere, gizakiaren eskuak nabarmen eragin duela uste dut. Hondoan zikin asko topatzen dugu, plastikoak, latak, poteak... denetarik. Azkeneko aurkikuntza Zarauzko hondartzako toldoak izan dira, Mollarrri parean. Egun oraindik ere hor daude bi toldo marradun handi. Izan ere, denboralea den egunetan itsasoak harrapatzen duen guztia eraman egiten du eta ez badu gizakiak

garbitzen, hor geratzen da, denbora luzez.

Hala ere, itsasoan baino zerrikeria gehiago dago errian: bizikletak, auto zatiak...

### Errio eta ibaietan ere ibiltzen zara orduan?

Bai, marea betearekin autopista azpian ibili izan gara. Gainera, arrantzatutako dugu zerbait, tarteka.

### Noiz edo noiz sustoren bat izan al duzue, ur gainera ezin atera zaudetela edo?

Une larririk ez, zorionez.

### ARRANTZATUTAKO ARRAINAK

**“Normalean sarboak—muxoiak— edo itxaskabrak harrapatzen ditugu. Tarteka, urrabururen bat ere atera izan dugu”**

### SAKONERA

**“Hemen inguruan hamabost metrotik gora egiten da arrantza. Ura erabat garbia dagoen kasuetan, 20-25 metroko sakonerara jaitsi gaitezke, baina hortik behera ezta pentsatu ere.”**

### ARRAINAREN BEHERAKADA

**“Orokorrean asko galdu da arraina. Lupia, esaterako, lehen asko ikusten zen eta orain, berriz, ez. Andesen kasuan ere, nahikoa nabarmena izan da azken urteotan egin duen beherakada”**

### GIZAKIAREN ERAGINA

**“Bai arrainari eta baita ekosistemari dagokionean ere, gizakiaren eskuak nabarmen eragin duela uste dut. Hondoan zikin asko topatzen dugu, plastikoak, latak, poteak... denetarik”**

### SARIA

**“Auskalo zenbat afari egin ditudan arrantzatutakoarekin, harrapatutako guztia etxera eramaten dut eta. Koadrilako lagunekin eta etxeokoen han edo hemen jaten dugu”**

Ur gainera ateratzean arnasa larri samar ibili deneko kasuren bat, berriz, bai. Nahikoa seguru ibiltzen gara, orokorrean: bazterrean, mendiaren kontra. Gainera, babesagoa izateaz gain, bertan egoten da arrainik gehien.

Gainontzean, inguruotan ez dago arrain arriskutsurik eta lasai ibiltzen gara. Gure kostan badaude marrazo txikiak, baina ez dute inolako kalterik egiten. Ez dira arriskutsuak, hondoan ibiltzen dira, lasai. Duela bi aste, esaterako, marrazo txiki horietako

bat ikusi nuen eta nire aurretik pasa zen, patxadaz eta majo.

### Zenbat afari eman dituzu arrantzatutakoarekin?

Uf! Auskalo, arrantzatutako guztia etxera eramaten dut eta. Koadrilako lagunekin eta etxeokoen han edo hemen jaten dugu.

### Tartean, inoiz tripako minik eragin duenik?

Ez, inoiz ez, zorionez. Beno, nik dakidala ez, behintzat.

## ADARRETATIK HELDUTA

*Krisia ala sistemaren porrota?*

**E**z dut orijinaltasunaren hari ezegonkorrean jarri nahi eta mala-barista bat bezala zerbait berriari buruz idatzi. Arrapaladan, idazteko gai asko otu zitzaizkidan: arrauna, gatzetxea, Muntoko plana... Orion hain garrantzitsu eta munduan hain baliogabe diren gai sakonak, alegia. Baina azkenean, ideologia guztietako prentsa eta telebista kateetan agertzen den eta mundu ero honetan bizigaren bizidunok pairatu dugun edo jasan dezakegun arazoaz hitz egingo dut. Adiera aipatu beharrik ez bada ere, batzuk ezkutatu nahi dutena agerian utzi nahi dudanez, honahemen, bolobolo denen ahotan dabilen hitz borobila: krisi ekonomikoa.

Koloretsu jantzitako pailazo makabroa agintariak ezkutatu nahi diguten arren, oso agerikoa da, ikusi besterik ez baitago inguruan ixten diren enpresak eta jendearen kontsumo eskasia. Hala ere, krisiaren ikuspegi historikoa ematen saiatuko naiz, nahiz eta ni historialaria beharrenean ikasle xume eta ezjakin bat besterik ez naizen.

Nire aburuz, krisi ekonomikoa izan ordez, sistemaren krisia da hau. Egun dugun sistema kapitalista da erabat, nahiz eta sistema mistoa dela dioten agintean ditugun sasi-sozialistek. Sistema mistoa kapitalismotik eratorritako sistema da, komunismoaren eta kapitalismoaren akatsak



IDOIA ETXABE  
IKASLEA

**Porrot egiten duenean, estatuak esku hartzeko gaitasuna eta beharra da sistema mistoak ekarri duen ezaugarri nagusia**

ezabatzeko asmoz, eta bien arteko egonkortasuna lortzen duen balantza batean, bietako alderdi positiboak hartzen ditu beregan.

Sistema mistoan, pribatua da enpresa, kapitalismoan bezala. Enpresak erabakiko du zer ekoiztu, inguruko erosleak eta hainbat

faktore kontuan izanik. Gero, enpresak produktu hori nola sortuko duen erabaki behar du, hori egiteko beharrezkoak zaizkion baliabideak aztertuko ditu eta prezioak. Ezinbestean, erantzunkizun handia da enpresarena. Bere gain izango ditu, irabaziak eta baita galerak ere.

Sistema mistoak arrisku horiek denak ditu, kapitalismoak bezala. Baina porrot egiten duenean, estatuak esku hartzeko gaitasuna eta beharra da sistema mistoak ekarri duen ezaugarri nagusia. Sistema kapitalistak denboraldi batero ziklikoki izan ohi dituen akatsak edo krisia bere gain hartu eta konpontzen saiatu behar du, berez, sistema mistoetan. Baina argia dena da, lehen hain aurrerakoiak ziren agintariak orain eskua poltsikotan sartzeko dutela krisia konpontzen saiatu beharrean. Halere, merezi ote du, hondamendiaren ondoren hautsitako platerak konpontzen hastea? Sistema komunistak, krisi hauek izan ez badiatu ere, gehienek porrotak izan dituzte, burokrazia ikaragarria dela eta. Oraintsu, irakurri dut *Berrian*, Txinak nekazaritza erreforma egin nahi duela, jabetza kolektiboko lur eremuak pribatizatu nahi dituela, soro horiek sorrarazten duten txirotasuna desagerrarazi nahian. Orduan, zein ote da sistema ekonomikorik onena? Agian oraindik sortzeko dago. Bota zuten proposamenak.

## NIRE HONETAN

## Where was Johnny?

**U**dalak eskatzen die herriko bizilagunei konpromiso aktiboa hartzea gai honekiko, manifestazioan parte hartuz. Horrela amaitzen zen Jon Redondo alkateak EAE/ANV eta EHAK alderdien ilegalizazioaren aurka manifestatzeko deialdia luzatuz sinatu zuen bandoa.

Eta non zen bera? Badakit ez duela bertaratzeko inongo obligaziorik, baina non da konpromiso aktiboa?

Etengabe ari zaizkigu politikariak telebistan, irratan, egunkarietan, mitinetan... elkarrizketa dela bide bakarra esanez. Mahaiaren bueltan eseri eta denon artean hitz eginez adostu behar omen dira gauzak. Baina gero, alde batetik edo bestetik, beti huts egiten dute, gizarteak entzun nahi duena esan eta gero. EAJ/PNVren esanetan ezker abertzalea erradikalegia omen da, eta EAE/ANVren ustetan EAJ/PNV *light*egia. Batak besteagatik, azkenean, inork ez du konpromisorik hartzen; ez aktiboa, ezta pasiboa ere.

Eskubideak ideia politikoak baino haratago doaz, politikoen diru gosea baino haratago, eta hori ulertzen ez duenak ez du inoiz ezer ulertuko. Eta ulertu nahi ez duenarentzat hitz bat soilik: hipokrita!

MIKEL ARANZABAL

**Goizeko**  
KAFETEGIA  
943 83 28 55  
Aita Leburdi 33 behean - ORIO  
Autobus parada ondoan

iñaki argazkiak  
caperochipi  
ezkontzeko asmorik bai?  
www.ikapero.com/ezkontzak  
659378751  
ikapero@ikapero.com

**HAIZE BERRI**  
tortura-jaketa-Lurirago  
Plater konbinatuak,  
Bakatak,  
Hamburgosak,  
vatioak,  
egunketa menta...  
eta etxera eramateko serbitzua!  
Bilbo Indaleku, Telera 1 - 48401 477 - Auzoa gurea Bile

**PERTSIANAK**  
A  
K  
O  
M  
A  
Z  
Aluminio, PVC  
Venezianak  
Motorrak...  
Tel: 943 13 29 01 / Muzikama 600 70 52 27

## MOILA BAZTERRETIK

## Oteiza



JOKIN SALSAMENDI

**O**nartu beharra dut. Sobredosiak jota nago. Oteizatisak zurrupatua. Oteiza hemen eta Oteiza han. Erakunde denak artista gurtu eta adoratzeko, Jainkoa bailitzan. Telebistan eta irratan, egunkari eta KAR-

KARAN, bere lana erakutsi nahian. Plazaratu dizkigute *Enbilenekoaren* hasierako urratsak, espazioak eta hutsa irudikatzearen artea; eta nola inspirazioa Orioko Antillako hondartzan jaso zuen, umetan, haizeak urteen poderioz harearrian egindako zuloei begira (guk plaiako arroekin Itxaspeko bidea egin dugu).

Kontatu digute bere obra aurre-historian oinarritzen dela, trikuharri eta menhirren esentzietan bustia, ze gizarteak beharrezkoa baitu, arraunlarien modura, atzera begira aurrera joatea (patroiak beti izan dira ameslariak: aurrera begira abordajera).

Gogorarazi dizkigute Arantzazuko bere maisulanaren gorabeherak. Hamabi apostolu egin beharrean nola hamalau egin zituen. Hama-

lau zirela traineruan hamalau diren bezala eta aldi berean apostolua bakarra zela postura desberdinetan jarria. Oroitu gara Kukuarriko ama-birjinaz, eta Piedadeaz, eta munduko hainbat herritan zabaldua dauden artelanez. Baita bere marrazki, saiakerak, plano eta ideiez.

Omendu du era xume eta maitean Orioko herriartistak handia. Gaurko Oriok gurtu du artista, ehun urte izangolitzu-keen maisua, bere lana irakatsi eta esplikatu ondoren. Eskultoreak dioena entzun ostean. Bere obraren poesia ulertzean. Eta belaunaldi berriek hobeto entendituko dute bere mezu osoa, zaila baita Jorge ulertzea eta gehiago estimatuko dute (gure hiru urteko umeak badaki Oteizakeskulturarak eta formakegi-

### Gure aitona-amonen Oriok ez zuen sekula eskultorea ulertu. Ezta artistatzat hartu ere

ten zituela).

Baina iruditzen zait Oteizaren herriak, gure aitona-amonen Oriok, ez zuela sekula eskultorea ulertu. Ezta artistatzat hartu ere. Ziurrenik etxe oneko eskulturaragilea pertsona *berexi* eta jakintsutzat izango zuten, baina era berean arrotza. Haien zat Serrasenekoak ziren artistak eta *La Estrella* pasteleriko esnegainezko bonbak eskulturarak.

## OHARRA

KARKARAko laguntzaileen kuota kobratzerakoan, akats informatikoa izan da eta, ondorioz, laguntzaile batzuei bi aldiz kobratu zaie eta beste batzuei ez zaie kobratu.

Barkamena eskatu nahi dizuegu sortutako eragozpenengatik eta gogorarazten dizuegu kuota bi aldiz kobratu bazaizue, zuen aurrezki kutxa edo bankuarekin harremanetan jarri behar duzuela, bi kobraketa horietako baten dirua itzularazteko.

Orion, 2008ko azaroaren 25ean

EUSKADIKO KUTXA

Orioko Euskadiko Kutxa

**Orioko Herri Ikastola**

Guraso Kooperatiba

ABESLARI KALEA, 8

TEL: 943 83 47 04

FAX: 943 13 09 38

orio@ikastola.net

www.oriokoikastola.net

*Izarna*

**ARGAZKIEN ERREBELATU DIGITALA MOMENTUAN**

KODAK KALITATEAZ

Edozein euskerri digital, bita sahelekoen Bluelight-ri ere.

*Bideo Produksioa* Arizaga 15, Orio / izarna7@vodafone.es / 943 83 38 81

**ITZIAR**

*kirolak*

Tel. 943 83 31 03

ardoak, urdaikiak, gaztak, kontserbak, janari prestatuak

**etxeraino eramaten ditugu**

**KIKVARRA**

943 83 09 84

aita lertxundi, 36 ORIO

**Joana Murgiondo**

Asegurari-ageritza

ASEGURUAUK

C C C I

CARBA, CILVEZ, LACORT Y CIA, S.A.

Abeslari, 4-2. esk.

Tfnoa: 943 13 46 07



**INDO**  
**Garraio frigorifikoa**  
 NAZIONALA ETA NAZIOARTEKOA



Olaskoegia, 12 - Tel. 943 894 024 - Fax. 943 130 144 AIA-ORIO

**ITSASADARRA, S. L.**  
 Jose Angel Iradi Udabe



aseguru artekaria  
 finka administratzailea  
 gestoria  
 enpresa berriak sortzeko diru laguntzen kudeaketa

Tel 943 89 40 29 Fax 943 83 54 56 [itsasadarra@itsasadarra.com](mailto:itsasadarra@itsasadarra.com)  
 Ibai Ondu 4. beheko. 2038 10 Orrio

**bodegas ERRASTI, S. L.**



Eskualderako banatzailea  
 Zudugarai, Getariako txakolina  
 Ilagares, ardo gorri nafarra  
 Bodegas Gailur: Señorío de Laurgain  
 Gailur eta Ardanategi,  
 Arabar Errioxako ardoak

Eusko Gudari, 46 ORIO • 943 83 03 86 / 83 59 52 • E-posta: [bodegaserrasti@euskalnet.net](mailto:bodegaserrasti@euskalnet.net)

*Dorronsoro Denda*

1961etik zure ondoan

**AUKERA HANDIAGOA  
 FRUTATEGIAN**



Tel 943 83 09 37



**Gure Txoko**  
 Arriaga Kalea

**jaletxea**  
 logelak  
**gazteategi**  
 Elkano auzoa  
 943 13 16 06

**AHOLKULARITZA**  
 Fisikala, laborala, kontablea

**Eugenio Garmendia**  
 ASEGURU ARTEKARIA

IBAI ONDO, 1  
 Tel: 943 83 44 66 - 943 83 49 17

**LURDES**  
 MARRAMEGLA



Eusko Gudari, 4- Tel. 943 83 00 24

*Lizaso dekorazioa*



Eusko Gudari, 45  
 Tf. 943 83 09 84 Fax: 943 83 81 00

**URANGA**  
 burdindegia  
 Opari, menaje eta erremintak

[fer.uranga@euskalnet.net](mailto:fer.uranga@euskalnet.net)  
 Telefax: 943 8312 36 Eusko Gudari, 3

**SOLOZABAL**  
 autoeskola



Eusko Gudari, 30-1. ezk  
 telef: 943 83 08 12

**Allianz**

**Marigre Zaldúa**  
 aseguru agentea

Ibai Ondu, 10 behe-oina  
 telefonoa: 943 13 47 60  
 fax: 943 83 57 52  
 e-mail: [zaldua.delacruz-pa@allianz.es](mailto:zaldua.delacruz-pa@allianz.es)

FISIOTERAPIA - Garbaitz Aristegi eta Natalia Wierzbicki  
 NUTRIZONISTA - Garbete Aizpuru

**sinergia** *investigacion fisioterapia*

ibai ondo, 1, behe-oina | ORIO | 943 13 05 77 ~ 685 71 85 95

**TANATORIO ZARAUZ**  
 EUROFUNERARIAS TALDEA

**Hileta eta zerbitzu orokorrak**

- \* Donostia eta probintziako ospitaleetan
- \* Aldiarako zerbitzua
- \* Belatorio gelak
- \* Koroak, eskelak, trankizioak...

Araba kalea, 35 Zarauz  
 Tel: 943 88 49 37 / Fax: 943 89 46 41  
 e-mail: [harraspil@harraspil.net](mailto:harraspil@harraspil.net)



**islada**  
 ESTILOA ZORROA

Sheila De Miguel - Saray Cendoya

Bakarran kalea, 3 beheko Orrio ondoan  
 Tf. 943 133 856  
 e-mail: [isladario@otmail.com](mailto:isladario@otmail.com)

**TAILER MEKANIKOA**  
**MANTEROLA S/L**  
 TIORROKAK - BALBULAK



Santiago auzoa - 18 postakutxa  
 Tel. 943 830 743  
 Fax. 943 134 634  
 E-mail: [tmmanterola@euskalnet.net](mailto:tmmanterola@euskalnet.net)  
 20 810 ORIO - GIPUZKOA



Estorako balbula  
 AENOR kalitate ziurtaginduna





## Tonbolak ez du inoiz huts egiten

**S**anikolasak badatozela eta laster jarriko dute betiko tonbola, Gabonak aurreko opariak banatzera.

Kasu honetan, ordea, Olentzerori gutuna bidali beharrean txartelak erosi behar dira, eta zortea noiz etorriko zain egon, patxadaz: ez pentsa txartel bakarra erositak tokatzen denik.

Argazki honetan ikus daitekeenez, garai batean

ere, urtero jartzen zen festetan tonbola plazan: Caritasen *tómbola de la caridad* izenekoa. Antza denez, herriko neska gazteak ziren txartelak saldu eta zortea banatzen zutenak.

Argazkikoak, ezkerretik hasita: Martina Uranga, Martin Arregi, Ramonita Aranburu, Tere Jesus Solaberrieta, Maitane G. de Txabarri eta Maria Larrañaga. Juanita

Murgiondo da bizikletarekin agertzen dena, bere ilobekin, eta haurra besoetan duen gaztea, berriz, Juan Manzisidor, *Martxelo*.

Tonbolaren inguruan ikus daitezkeen haurren izenik ez dakigu.

ARGAZKIA: KARKARA

INFORMAZIOA: ORIO.

HISTORIA ARGAZKITAN LIBURUTIK

Txoko honetan erakusteko moduko argazki zaharren bat baldin badaukazu, ekarri KARKARA eta gustu handiz argitaratuko dugu, zuk ekarritakoa dela jarrita.

# KARKARA

tel/fax: 943 89 00 69  
Etxekalea, 4 - 20.000 ZAPALTZ

ITURGINTZA, BEROGINTZA  
GASA BAINU ERAKUSKETA

ZAPATA KONPONKETAK


Larunegutik 09:00 - 13:00 eta 16:00 - 19:00  
Kartaboretatik 09:00 - 13:00  
Herriko egoitsetan, Oriu

Sukalde eta bainuen erreformak

XANTI MUJIKA  
Igeltseritza

699 46 76 21  
943 13 10 37

## KRITIKA



Era askotako piezak osotzen dute Juan Rekartek Durangora eramango duen diskoetako batek.

KARKARA

## Hemengo edo hango, non dago fandango?

**F**andango 3 mendeetan izena daraman diskoari buruzko nire iritzia emateko eskatu didate. Durangoko azokan kalera-tuko den lan hori estilo eta grabazio askorekin osatuta batean entzuteko.

Azaleko argazkiak erromeria eta festa mundura eramana nau, baina grabazioa entzundakoan, iruditzen zait, egokiagoa dela lekulasai batean entzuteko.

Goxo-goxo, sofan eserita entzun ditut Luigi Bocheriniren *Del Fandango* Andaluziako ukitua duen abestia

gitarraz eta harpaz. *Inguruto* Tomas Garbizurena pianoaz, baita ere, egile beraren *Fandango Bolero* txistua eta organoarekin, gitarrekin Azpiazuren *Basatxoritxu* eta Ernesto Mastronardik pianorekin egin duen *Andre Maddalen* abestiaren bertsoia.

Musika tresna herrikoietara itzuliz, txistuarekin grabatutakoak badira, Ixidro Ansorena, Basurko, Jesus Guridi, Alejandro Aldekoa eta Luis Urteagaren doinuak. Grabazio zaharrak ere aurkitzen dira diskoan, Eibar

eta Donostiako trikitixarenak. Gaztelaniaz abestutako koplak ere entzun daitezke Eibarko pandero jolearen ahotsean.

Azkeneko abestiek berriro azaleko argazkira ekarri naute. Entzuten ditudan txistu eta trikiti doinuek eta jendearen txalok azalean agertzen diren bi dantzariak dantzen jartzen baitituzte.

Hor dago *Fandango*!

IMANOL URKIZU

## IKASLEAK IDAZLE



NADETH AGIRRE |

DBH 4

## Entrenatzaile gutxi

**G**aur egun Orio bezalako herri txiki batean gazte asko dago. Gehienek kirola egiten dute, herrian kirola egiteko aukera zabala baitago. Bai futbolekin, saskibaloian edo arraunean arazo berdinak izan ohi dira: gazte asko eta begirale gutxi. Begirale gutxi egotearen arrazoietako bat, gutxi edo ezer ez zailako ordaintzen da. Gazteen entrenatzaile izatea borondatezkoa da, ez da derrigorrezkoa titulurik edukitzea edo kirol horretan aditua izatea. Norbere borondatea eta denbora libre pixka bat izanez gero, nahikoa da.

Aurten arraun elkartean neskei gertatu zaiguna da. Hilabete pasatxo eman dugu geure kabuz entrenatzen eta horrek motibazio falta sortzen du.

Ea ba lehenbailehen konpontzen den arazoa.

  
**Zaragueta Eskola Orio**  
telefonoa: 943 89 40 52  
e-mail: 012137aa@hezkuntza.net

**Peluteria eta estetika mistoa**  
  
- Tinte argiztatutako eta kolorezko naturalak  
- Deslucetarako ointze irautkorra  
- Azkara/ esfoliantza  
- Pedilura  
- Depilazioa  
**Sex Rikolar, 2 Tel: 943 85 31 70**

  
**JUAN PEDRO FERNANDEZ OSA**  
(ORRIE ZEMAKHEGIVAN PSICOLOGO KOLIBRATIA)  
ANOL KULAFITZA BIKOTE ARTEKO GATAZNETAN  
PRESTAJUNTZA TREKLETASUN SOKIALETAN  
616 98 25 47  
aditza@jpo.es

**KOLON TXIKI**  
Herriko Enparantza, 4  
ORIO  
Tel. 943 83 00 44

## HANDIK ETA HEMENDIK

“

“Begiz jotzen gaituzten unetik nik uste, neska hori nirea izango duk erabakitzen dutenean ez dute etsitzen pieza ehizatu arte, hori da hitza, ehizatu, eta senarrak jipoitzen nindueanean, ez nintzen pieza ere, altzari bat baino gutxiago nintzen, ez nintzen ezertarako ezer, berorrek inoiz izan du altzari bati joka eta ukabilka hasi den gizona koren baten berririk? ez noski, nola ba, baina kontua da senarrak jotzen ez nindueanean ere altzari bat baino gutxiago nintzela.”

## ANJEL LERTXUNDI

Idazlea  
Berria  
2008/11/18

## OSPAKIZUNA



## Urrezko ezteiak

Inazita Abaurrea Lertxundik eta Aniceto Mendez Fernandez bikoteak urrezko ezteiak egin zituzten azaroaren 22an. Elizkizunarekin eta bazkariarekin ospatu zuen familiak. Nahikoa jan-edana, abesti eta opari izan omen zituzten eta hain gustura egonda, bazkal osteko eserialdia ere luzatu egin zitzairen. Familiak eta lagunek zuen maitasuna orain bezalaxe luzarotan irautea eta horrelako ospakizun gehiago edukitzea espero dute. Zorionak eta holaxe segi amona eta aitona maiteak!

## ZORIONAK!



## Txurrumuskeri

10 urte handi beteko ditu aurtengoan Txurrumuski Kultur Aisialdi Elkarteak eta bide luze horretan konta ezineko algara pila sorarazi dizkie herriko haur, gaztetxo eta gazteei.

Ametsa Gaztelekua —izen egokia da egiten duten lanerako— aurrera eramateko erronka ere bere egin dute aurtengaztetxoan aisialdia antolatuz heldutasunerako eta garapen pertsonalerako eman beharreko pausoak azaltzen dizkiete.

Segi dezatela horrela urte askoan, herriak behar du eta boluntario lan egingo duenik, gutxiagitan eskertzen bada ere.

**RAMIRO**  
argazkiak  
www.fotoramiro.com  
fotoramiro@fotoramiro.com  
610 69 76 68  
943 83 10 48

Ille zaindegia  
**MARIJO**  
Neska eta mutilentzako  
Eusko Gudazi, 8 - bajo  
Tel. 943 13 47 29  
ORIO

arrotegia  
**MIRANDA**  
Ira M. Lizarri  
farina, ato, berbi, askakora...  
behar dituen arto: larak  
eguzki dituzte  
Urdaneta bidua. 1 +655 42 52 70 - ZARAOTE

**Nahikari**  
HAUR DENDA  
TIENDA DE PUERICULTURA  
Arriñzale Kalea, 55  
20100 - Oria  
Tel. 943 83 34 50  
www.nahikari.es

**LUXARBE**  
igeltseritza  
Igeltseritza orokorra, denetarik egiten dugu.   
Presupuestoak eskatu konpromisorik gabe   
Lan txukuna eta merkea   
Telefonoa 943 83 59 00

## OROIMENAREN KUTXA



1903an kaleen izenak euskaraz jarrita zeuden Orión.

SALATXOKEK UTZITAKOA

## JAIOTAKOAK

- Aritz Azpitarte Iriondo, Orión, azaroaren 16an.
- Jurgi Azpitarte Iriondo, Orión, azaroaren 16an.

## EZKONDUTAKOAK

- Aitor Lopetegi Galarra eta Maitane Egorzegi Olaskoaga, Orión, azaroaren 22an.
- Igor Zabala Saizar eta Arantzazu Beldarrain Agirre, Andatzen, azaroaren 15ean.

## HILDAKOAK

- Jose M. Ibarrola, azaroaren 17an. 67 urte. Aian
- Ana Castresana, Orión, azaroaren 18an. 77 urte.

## 1903ko Orioko albisteak

A skok usteko dute KARKARA dela Orió bertako informazioa ematen duen lehenengo hedabidea. Batzuk badakite aurretik Alberto Oliden ere horretan aritu zela urte askoan egunkari bateko kronikan. Baina oso gutxi jakingo du orain 100 urte baino gehiago izan zela astekari bat tarteka Orioko berri ematen zuena. Aldizkariak Ibaizabal zuen izena, Bilbon argitaratzen zen, euskara hutsez, eta ale batzuetan Zarauzko kronika agertzen zen Ibaizabalen, Genaro Elizondok idazten zuen. Aldizkariak izan zuen bi urteko bizitza laburrean, 1902ko urtarrilean sortu eta 1903ko

abenduan plazaratu baitzuen azken zenbakia, eman zuen Orioko aurreneko albiste izan zen emakume batek istripu arina izan zuela automobil batek harrapatuta. Baina 1903ko otsailaren 1eko alean oso gauza interesgarria zekarren. Hona hitzez hitz, orduko idazkerarekin:

*Igandean izandu naiz Orión, eta lenago oartuez nua-na ikusi nuen, kaleak euskeraz dauzkatala izenak jarriak. ¡Zeinen ederki Oriotarrak! Ontan ematen dezute aditzera chit maite dezutela gure euskara illunik gabea, eta poz-tutzen da euskara maite dubenaren biotza, batez ere arako erdarazko letreruak besterik ikusten ez tuenarena.*


*Erri edo uri chikiak ikas-*

*kizun ederra ematen dezute letrero oiekiñ beste erri edo uri aundietako jendeari non eztezun ikusiko letrero bat bakarrikeuskeraz jarririk; eta kontuz esan zenbaiti eztuela euskara maite, asarratu egin-go zaizu eta.*

Euskararen eguna da datorren abenduaren 3an. Egun horretan oriotar guztiei galdetara inozo hau egingo bage-nie: zu euskararen alde al zaudete? Seguru %90etik gora baietz erantzungo luketela. Baina Genaro Elizondo orain etorriko balitz Oriora zer? Kaleko izenekin ez, baina uste dut herritar askoren hizkuntzarekiko jarrerarekin ederki zapuztuta bueltatuko litzatekeela Zarautza Oriotik.

IÑAKI ITURAIN

Eskela edo urteurreneko gogoangarria KARKARAN jarri nahi baduzu, deitu gure telefonora:  
943 83 15 27



# LEIHOLAN

Aholkularitza tekniko eta erakusketak

<p style="font-size: small;">Fabeika Agote Industrialdia Agote, 5. 20940 Zestoa</p>	<p style="font-size: small;">Erakusleak San Francisco, 1. 20900 Zarautz</p> <p style="font-size: small;">Alta Lertxundi, 23. 20610 Orió Tel: 943 83 43 36</p>
---	---

# ORIOGI

OPIL OKINOEGIA  
frontoi ondoan  
Ifnoa: 943 83 01 89

PACCHA CONEJO | VIVENCIAS TALDEKO KIDEA

# “Gure kulturaren berri izan dezazuen sortu dugu taldea”

**Gurean bizi diren Amerikako indigena otabaldarren Vivencias taldeak musika ikuskizuna eskainiko du sanikolasetan, Donostiako dantzari talde batekin batera. Aitzakia hori hartuta izan gara Paccha Conejorekin.**

## Noiz sortu zen zuen taldea?

Hemengo gizartearekin gure ohiturak, bizimodua eta kultura elkartrukatzeko sortu dugu dantza taldea. Jendeak gure etnia ezagutzea nahi genuke eta bizi garen herrietan, bat gehiago izan nahi dugu.

Gipuzkoan bizi garen indigena otabaldarren herrimina gutxitzeko modua ere bada guretzat. Familiarengandik urrun, musika, dantza, kultura, gure festarik gabe... nabaritzen ditugu faltan eta hango ohitura batzuk hona ekartzen saiatzen gara, denon artean. Indigenok gurea dena babesten saiatzen gara eta gure hizkuntzak, bizitzak eta bihotzak bat egingu dute beti.

Idea horiek buruan, taldea duela hiru urte jaio zen, Zaraguetan eskolan gerontzako egin genuen urte bukaerako festarako. Etxean sentiaraziko gaituen zerbait sortu nahi dugu, handik kilometro askotara gaudela jakinda.

## Taldea sortu aurretik elkar ezagutzen al zenuten?

Ez, partaiderik gehientsuenok taldearen bitartez izan dugu elkarren berri. Orion, Aian edo inguruotan bizi gara gehienok —Seguratik eta Gipuzkoako beste txokoren batetik etorritako lagunak ere baditugu— eta lehen kontaktuak erakustazoketan edo lanean egin ditugu. Piskanaka-piskanaka otabaldar-



Pacchak, tarteka, lehengusina Angelikari ere erakusten dio dantzan.

KARKARA

**Lehen kontaktuak erakustazoketan edo lanean egin ditugu eta piskanaka elkartzuz joan gara otabaldarrak**

rrak elkartzuz joan gara, bakoitzaren abileziak erakutsi, irakatsi... taldea sortu arte.

## Zenbat taldekide zarete?

Dantzan sei lagun aritzen gara: hiru emakumezko eta beste hainbeste gizonzko. Musika taldean ere sei dira:

**Gure ikuskizunaz gozatzera etortzeko animatu nahi dut jendea. Jaso ezazue guztiok gure gonbita**

bost gizonzko eta emakumezko bakarra. 7 bat instrumentu jotzen dituzte: gitarra espainiarra, sanpoña (hemen Panen txirula izenez ezagutzen da banbukanaberez egindako tresna hori), armadilloaren oskolarekin eginda dagoen txarangoa, kena—txirula

moduko bat—, rondador-a, txaktas-a eta bateria elektronikoa.

## Sanikolasetan zer nolako emanaldia eskainiko duzue?

Egia esan, nahikoa berandu bagabiltza prestaketekin. Dantzariak kanpotik etorriko dira; haiek bilatzen joan zaizkigu egunak eta egunak, eta gainera etorri zaizkigu orain festak. Azkenean Donostiatik etorrita 20 bat izango ditugu alboan.

Antzerki batekin hasiko da saioa eta gero musika taldeak lau pieza joko ditu. Dantzariak *yumbitos*—otabaldarren dantza tipikoa eta klasikoa da, saltoka dantzatzen dena. Aerobikaren edo batukaren estilokoa da, musikaren erritmoan hankak eta gainontzekoa mugitzekoa— eta *Sanjuanito*—ekainean, *Inti raimyeguzki*-jainkoaren omenegiten den dantza da eta aurrekoa baino pieza alaiagoa—eskainiko dituzte gero.

Dantzariak 4 aldiz aldatuko dituzte jantziak; tartean, otabaldarren berezko jantziak izango dituzte: emakumezkoek eskuz egindako brodatu eta parpailagintzazko blusa zuri bat, bigona—bat zuria, eta beltza edo urdina, bestea—, alpargatak eta lepokoren bat; gizonzkoek, galtza eta alkandora zuriak, pontxo beltz bat eta txapela.

Urte amaierako, Zaraguetan eskolan antolatutako dantza lagun izango ditugu hauek, Lasarteko beste talde batekin batera. Eta orduan, bai, Vivencias taldeko dantzariak ere bertan izango gara.

Bide batez, lerrootatik jendea gure ikuskizunaz gozatzera etortzeko animatu nahi dut. Jaso bezate guztiek gonbita.

TREN ORDUTEGIAK

DONOSTIA - ZARAUTZ

Donostia	05:47	06:17	06:47	07:17	07:47	08:17	08:47	09:17	10:47	11:47	12:17	12:47	13:17	13:47
<b>Aia-Orio</b>	<b>06:14</b>	<b>06:44</b>	<b>07:14</b>	<b>07:44</b>	<b>08:14</b>	<b>08:44</b>	<b>09:14</b>	<b>10:14</b>	<b>11:14</b>	<b>12:14</b>	<b>12:44</b>	<b>13:14</b>	<b>13:44</b>	<b>14:14</b>
Zarautz	06:19	06:50	07:20	07:50	08:20	08:50	09:20	10:20	11:20	12:20	12:50	13:20	13:50	14:20

Donostia	14:17	14:47	15:17	15:47	16:17	16:47	17:17	17:47	18:17	18:47	19:17	19:47	20:47	21:47
<b>Aia-Orio</b>	<b>14:44</b>	<b>15:14</b>	<b>15:44</b>	<b>16:14</b>	<b>16:44</b>	<b>17:14</b>	<b>17:44</b>	<b>18:14</b>	<b>18:44</b>	<b>19:14</b>	<b>19:44</b>	<b>20:14</b>	<b>21:14</b>	<b>22:14</b>
Zarautz	14:50	15:20	15:50	16:20	16:50	17:20	17:50	18:20	18:50	19:20	19:50	20:20	21:20	22:20

ZARAUTZ - DONOSTIA

Zarautz	06:08	06:38	07:08	07:38	08:08	08:38	09:08	10:08	11:08	12:08	12:38	13:08	13:38	14:08
<b>Aia-Orio</b>	<b>06:15</b>	<b>06:45</b>	<b>07:15</b>	<b>07:45</b>	<b>08:15</b>	<b>08:45</b>	<b>09:15</b>	<b>10:15</b>	<b>11:15</b>	<b>12:15</b>	<b>12:45</b>	<b>13:15</b>	<b>13:45</b>	<b>14:15</b>
Donostia	06:39	07:09	07:39	08:09	08:39	09:09	09:39	10:39	11:39	12:39	13:09	13:39	14:09	14:39

Zarautz	14:38	15:08	15:38	16:08	16:38	17:08	17:38	18:08	18:38	19:09	19:38	20:09	21:09	22:09	22:38
<b>Aia-Orio</b>	<b>14:45</b>	<b>15:15</b>	<b>15:45</b>	<b>16:15</b>	<b>16:45</b>	<b>17:15</b>	<b>17:45</b>	<b>18:15</b>	<b>18:45</b>	<b>19:15</b>	<b>19:45</b>	<b>20:15</b>	<b>21:15</b>	<b>22:15</b>	<b>22:45</b>
Donostia	15:09	15:39	16:09	16:39	17:09	17:39	18:09	18:39	19:09	19:39	20:09	20:39	21:39	22:39	23:09

AUTOBUS ORDUTEGIAK

LANEGUNETAN

Donostia	Orio	Zarautz	Zarautz	Orio	Donostia
06:55	07:25	07:35	06:45	06:55	07:30
07:40	08:15	08:25	07:15	07:25	08:00
08:10	08:45	08:55	07:45	07:55	08:30
08:40	09:15	09:25	08:15	08:25	09:00
09:10	09:45		08:45	08:55	09:30
09:40	10:15	10:25	09:20	09:30	10:10
10:40	11:15	11:25	09:45	09:55	10:30
11:40	12:15	12:25		10:30	11:10
12:10	12:45	12:55	10:45	10:55	11:30
12:40	13:15	13:25	11:45	11:55	12:30
13:10	13:45	13:55	12:45	12:55	13:30
13:40	14:15	14:25	13:20	13:30	14:10
14:10	14:45	14:55	13:45	13:55	14:30
14:40	15:15	15:25	14:20	14:30	15:10
15:10	15:45		14:45	14:55	15:30
15:40	16:15	16:25	15:20	15:30	16:10
16:40	17:15	17:25	15:45	15:55	16:30
17:40	18:15	18:25		16:30	17:10
18:10	18:45		16:45	16:55	17:30
18:40	19:15	19:25	17:45	17:55	18:30
19:10	19:45	19:55	18:45	18:55	19:30
19:40	20:15	20:25		19:30	20:10
20:15	20:50	21:00	19:45	19:55	20:30
21:00	21:35	21:45	20:45	20:55	21:30
22:15	22:50	23:05	21:15	21:25	22:00

ASTEBURUETAN

Donostia	Orio	Zarautz	Zarautz	Orio	Donostia
08:00	08:35	08:45	06:45	06:55	07:30
09:00	09:35	09:45	07:45	07:55	08:40
10:00	10:35	10:45	08:45	08:55	09:40
11:00	11:35	11:45	09:45	09:55	10:40
12:00	12:35	12:45	10:45	10:55	11:40
13:00	13:35	13:45	11:45	11:55	12:40
14:00	14:35	14:45	12:45	12:55	13:40
15:00	15:35	15:45	13:45	13:55	14:40
16:00	16:35	16:45	14:45	14:55	15:40
17:00	17:35	17:45	15:45	15:55	16:40
18:00	18:35	18:45	16:45	16:55	17:40
19:00	19:35	19:45	17:45	17:55	18:40
20:00	20:35	20:45	18:45	18:55	19:40
21:00	21:35	21:45	19:45	19:55	20:40
22:00	22:35	22:45	20:45	20:55	21:40
22:30	23:05	23:15	21:45	21:55	22:40

**OHARRA:** lanegunetan koadro argidun ordutako autobusak urbiarik pasatzen dira. Asteburuetan, berriz, gazdik pasatzen dira. Koadro lanetako ordak larunbaitako (laneguna) zerbitzuak bakarrik daude.

Aia eta Orio orriko autobus zerbitzuak Landabusek darima. Zerbitzuaren buruzko informazioa lortzeko zenbait bide daude:

[www.landabus.com](http://www.landabus.com)

Tf: 943 24 01 14

sme-a 0360 zerbakia

ITSASOA

Abendua	Itsasgora	Itsabehera	Ilargia
28	04:26 eta 16:47	10:36 eta 22:48	
29	04:59 eta 17:20	11:12 eta 23:22	
30	05:32 eta 17:54	11:46 eta 23:55	
01	06:07 eta 18:29	12:22 eta _____	
02	06:44 eta 19:06	00:31 eta 12:59	
03	07:26 eta 19:49	01:09 eta 13:41	
04	08:14 eta 20:41	01:54 eta 14:29	
05	09:09 eta 21:44	02:46 eta 15:25	☾
06	10:12 eta 22:55	03:48 eta 16:28	
07	11:19 eta _____	04:57 eta 17:33	
08	00:01 eta 13:23	06:03 eta 18:34	
09	00:58 eta 13:21	07:02 eta 19:29	
10	01:50 eta 14:16	07:56 eta 20:21	
11	02:39 eta 15:07	08:48 eta 21:10	
12	03:28 eta 15:59	09:40 eta 21:59	☉

ZAINZAKO BOTIKAK

ABENDUA

- 29 eta 30ean, Mutiozabal.
- 1ean, Zulaika.
- 2an, Etxeberria.
- 3an, G. Artiñano.
- 4an, Azaldegí.
- 5ean, Zulaika.
- 6eta 7an, Iriarte.
- 8an, Mutiozabal.
- 9an, G. Artiñano.
- 10ean, Azaldegí.
- 11ean, Zulaika.
- 12an, Iriarte.
- 13 eta 14an, Larrañaga.
- 15ean, G. Artiñano.
- 16an, Azaldegí.

**Azaldegí:** Urdaneta kalea, 8. 943 13 31 83 Zarautz

**Etxeberria:** Gipuzkoa, 17. 943 83 23 98 Zarautz

**Mutiozabal:** Kale Nagusia, 12. 943 83 29 70 Zarautz

**Larrañaga:** S. Frantzisko, 16. 943 13 38 14 Zarautz

**Lasa:** Herriko plaza. 943 83 09 36 Orio

**G. Artiñano:** Zigordia kalea, 17. 943 13 40 19 Zarautz

**Iriarte:** Zinkunegi, Pilartxo Enea 943 13 29 83 Zarautz

**Zulaika:** Bizkaia kalea, 41 943 13 39 94 Zarautz

**IPIIN KONTALARIA**

■ Orion, abenduaren 11n, Pello Añorga ipuin kontalaria liburutegian, 18:00etan.

**HITZALDIA**

■ Abenduaren 15ean, Zaharren babes lekuak Kutzaren laguntzaz antolatuta, *Ondo lo egin hobeto bizitzeko* hitzaldia. 18:00etan, kultur etxean.

**KONTZENTRAZIOA**

■ Orion, azaroaren 28an, euskal presoak Euskal Herriratzearen aldeko kontzentrazio isila, plazan.

**TRASTE ZAHARRAK**

■ Orion, abenduaren 7an jasoko dituzte altzari zaharrak. Bezperan utzi behar dira eta Udalean abisua eman.

**SILO BOLAK**

■ Aian, abenduaren 9an. Zerbitzuaren inguruko informazioa jasotzeko Urkomera deitu: 943 81 65 00; edo bertako Igorrekin hitz egin: 660 04 97 51.

**PODOLOGIA**

■ Aian, abenduaren 13an. Ordua hartzeko Udaletxean eman behar da izena.

**KONTZERTUA**

■ Abenduaren 18an,

**Erakusketa berezia**

Abenduaren 16etik 19ra, Antonio Elespe Argazki Rallyko lanen erakusketa izango da Orioko kultur etxean ikusgai. 50 bat fotok osatuko dute erakusketa eta geometriaren, arkitekturaren, koloreen, uraren eta txalapartaren ingurukoak izango dira, horiek izan baitziren aurtengo lehiaketako gaiak. Sari banaketa hilaren 19an izango da, kultur etxean, 19:00etan.

Danbolin musika eskolako tailerretako eta instrumentuetako ikasleen gabonetako kontzertua, 17:30ean, kultur etxean.

**TAILERRA**

■ Abenduaren 13an, indarkeriaren inguruko

tailerra. Hizlaria: Eider Goiburua. Kultur etxean, 10:00etan.

**FESTA**

■ Abenduaren 13an, Txurumuskiren 10 urteak ospatzeko jaia begirale izandakoentzat. Goizean,

jolasak; ondoren, kantu-poteo-jolasa eta bazkaria.

**FUTBOLA**

■ Azaroaren 29an, regionalean: Orio-Tolosa B. Kadeteak: Orio-Lengokoak. Infantilak: Martutene-Orio. Emakumezkoen ligan: Zumaia-Orio.  
■ Abenduaren 6an, Kadeteak: Luberrri-Orio. Ligan: Zarautz-Orio.  
■ Abenduaren 13an, regionalean: Mondragon-Orio. Kadeteak: Orio-Mundarro La Salle. Infantilak: Orio-Intxaurren. Ligan: Orio-Lagun-Onak. F-11n: Orio-Luberrri.

**ARETO FUTBOLA**

■ Azaroaren 30ean: Orioko Tabernak-Ceramicas Nogales.  
■ Abenduaren 7an: Jarrilleros-Orioko Tabernak.  
■ Abenduaren 14an: Orioko Tabernak-Laskorain.

**PLAIEROAK**

Zarauzko hondartzan  
■ Azaroaren 30ean, neskek: Txiki Polit-Xixario. Mutilak: Kepa Loidi-Arg; Marmol/Malecon-Unar. Zarauzko hondartzan.  
■ Abenduaren 14an, neskek: Xixario-Pagoeta. Mutilak: Itxas Lur-Kepa Loidi; Unar-Plasticos Urteta.

**AZOKA****Iragarkietarako txokoa**

Iragarri nahi duzun hori telefonoz (943 83 15 27) zein e-postaz bidali dezakezu: karkara@karkara.com. Merke-merke, doako zerbitzua baita gurea.

**ALOKAIRUA**

■ Edozein negozio zabaltzeko lokala alokagai Orion, Eusko Gudarin. Informazio gehiago: 943 83 09 29 (Pilar).  
■ Alokatzeko pisu bila nabil

Orion. Tf: 625 70 37 05 (Joseba).

**SALGAI**

■ Volkswagen Golf autoa salgai, 1991. urtekoa. Tf: 630 77 88 07.  
■ Mercedes Class E autoa salgai. 2003. urtekoa, 89.000 km eta ondo zaindutakoa. Tf: 647 10 16 46.  
■ Hiru ateko Peugeot 206 autoa salgai. 10 urtekoa, 144.000 km. Gasolina. 2.800 euro. Tf: 615 73 69 11.  
■ Taxi lizentzia salgai, Orion. Tf: 669 89 10 20.  
■ Izozgailua salgai. Berri-berria eta egoera onean. Tf: 696 33 28 80 (Jone).

**GALDUTAKOAK**

■ Zilar koloreko eraztun bat agertu zen Orioko kultur etxe parean, urrian. Kolore ezberdinetako karratu batzuk ditu aurreko partean. Jabeak KARKARAREN bulegoan jaso dezake.  
■ Setter arrazako txakur bat galdu zen azaroaren 22an, Iturriotz inguruan. Dik du izena eta zuri-beltza da da. Belarri beltzak ditu eta bizkar zabalekoa da. Ikusi duenak dei dezala, arren, 628 06 94 12 zenbakira.  
■ Kontxako barandilla duen lepokoa galdu nuen azaroaren 23an, Iturbidetik Zaharren Babes Lekura

bidean. Aurkitzen duenak dei dezala, mesedez, 943 24 89 68 zenbakira.  
■ Garajeko mandoari lotuta dagoen Volkswagen auto baten giltza galdu nuen azaroaren 23an. Aurkitzen duenak udaltzaingoan utz dezala, mesedez.

**LAN ESKAINTZAK**

■ Montaje eta ajuste mekanikoan aritutako langilea behar dugu. 669 01 43 49.

**EROSGAI**

■ Arko motako izozgailu handi bat erosiko nuke. Tf: 696 33 28 80 (Jone).

